



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

2/2025 Ebazpena, urtarrilaren 7koa, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2025. urterako Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak jakinarazten dituena.

Zerga-eremuan Bizkaiko Foru Aldundiak bi helburu nagusi ditu: batetik, zerga-eskakizunak betetzeko zergak ordaindu behar dituztenei laguntzea eta, bestetik, zerga-iruzurraren aurka borrokatzea. Bizkaiko Foru Ogasunean zergak kudeatu, ikuskatu eta bildu behar dituzten organoen helburua da pertsona guztiak beren gaitasun ekonomikoarekin bat zama publikoak eusten laguntzen dutela bermatzea. Hain zuzen, ongizate-estatua eraikitzeko oinarritzko elementua da.

Ikuspegi bikoitz honetatik, lan-sistemak eta -prozedurak etengabe hobetzen eta modernizatzen jarraitzeko prozesuan gaude, zergadunei beren betebeharrak betetzen ahalik eta gehien laguntzeko xedearekin. Aldi berean, beren ahalegin guztiak bideratu nahi ditugu zerga-iruzurraren kontrako eta herritarrekin solidarioak ez direla erakutsiz beren zerga-betebeharrak nahita betetzen ez dituztenen kontrako borrokaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko.

Beraz, Bizkaiko Foru Ogasunaren eginkizunaren programa-ardatzetako bat zerga-betebeharrak betetzeko informazio- eta laguntza-politika eraginkor bat diseinatzea eta aplikatzea da, betebeharrak horiek betetzen direla kontrolatzea eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea, herritarren arlo horretan kontzientziatzeko eta iruzur-jokabideak jartzeko, disuasio-izaera nabarmenarekin.

Zergen Foru Arau Orokorraren 114. artikularen arabera, «Aldizka, zerga-administrazioak iruzurraren aurkako plana prestatuko du; plana isilpean edukiko da baina, hala ere, beraren irizpide orokorrak ezagutzera emango dira».

Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko Erregelamenduaren 17. artikulua ezartzen duenez (urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia), Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plana onetsiko du. Plan hori Informazio eta Sistemen Zuzendariordetzak egingo du, Zerga Kudeaketa, Ikuskapen, Diru-bilketa eta Koordinazio nahiz Laguntza Teknikoko Zuzendariordetzekin lankidetzan. Plan horrek Bizkaiko Foru Ogasunak arlo horretan egiten dituen jarduketaren urteko jarraibideak jasoko ditu, baita ebaluatzeko eta berrikusteko mekanismoak ere. Planean, Zuzendariordetza bakoitzaren plan zehatzak jasoko dira, urteko jarraibideekin elkartuta.

Gauzak horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 18ko 82/2024 Foru Dekretuak aldatu egin du Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua (3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia), eta iruzurraren aurkako borrokaren plangintza eta koordinaziorako zerbitzu berri bat sortu du, Informazio eta Sistemen Zuzendariordetzaren barruan. Zerbitzu berri horrek dagoeneko desagertuta dauden Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren Nazioarteko Plangintza eta Fiskalitatearen Zerbitzuak; eta Arriskuak Aztertze eta Iruzuraren aurkako Borroka Koordinatzeko Zerbitzuetako eginkizunak eta langileak hartu ditu bere gain. Horrela, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko organo guztiak iruzurraren aurka borrokatzeko egindako jarduketak koordinatu eta planifikatzeko eginkizunen zeharkakotasun-prozesua osatu da.

Aurreko aldaketaren ondorioz, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak beste izen bat ematen dio Nazioarteko Plangintza eta Fiskalitatearen Zerbitzuari, eta aurrerantzean Nazioarteko Fiskalitatearen eta Ekonomia Digitalaren Zerbitzua izena hartuko du. Izan ere, utzi egiten dio ikuskapen-jarduketaren planifikazio-funtzioak egiteari, jarduketa horiek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarentzat zeharka egingo baitira, Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetzako Iruzuraren aurkako Borroka Planifikatu eta Koordinatzeko Zerbitzutik. Hala



ere, lehendik zuen espezializazioa mantentzen du, nazioarteko fiskalitateari eta talde multinazionalei lotutako zerga-ikuskaritzako jarduketeta eta prozedurei dagokienez, baita lotutako pertsona eta entitateen arteko eragiketetan egindako transferentzia-prezioekin lotutako gai guztiei dagokienez ere. Hemendik aurrera, ekonomia digitalizatzearekin eta ekonomia digitalaren eremuan jarduten enpresen zerga-ordainketarekin lotutako zerga-ikuska-peneko jarduketetan eta prozeduretan espezializatzea ere hartuko du barne.

Era berean, Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetzan, lehengo Arriskuak Aztertze eta Iruzuraren aurkako Borroka Koordinatzeko Zerbitzuari Arriskuak Aztertze Zerbitzu izena eman zaio. Bere funtzioak —Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren osotasunerako zeharkako ikuspegiarekin— BATUZ sistema behin betiko ezartzeko erabiliko dira, big data eta business intelligence tresnak ustiatzeko eta zerga-administrazioaren eingizunak gauzatzeko aplikazio informatikoak garatzeko.

Iruzuraren aurkako Borroka Planifikatu eta Koordinatzeko Zerbitzuari dagokionez, Iruzuraren aurka Borrokatze Planaren urteko proposamena eta haren emaitzen txostenak egiteaz gain, Bizkaiko Foru Ogasunaren esku dagoen zerga-arloko garrantzia duen informazioaren azterketa egingo du, ikuskapen-prozeduren hasiera proposatzeko, eta administrazio-prozedurak Ogasun Nagusiaren organoetara helarazteko, dagozkion administrazio-prozedurak izapidetu daitezten. Era berean, ardura ematen zaio, bestek beste, informazioa lortzeko jarduketeta orokor edo selektiboen plangintza egiteko.

Aurrekoa kontuan izanik, gogoratu behar dugu Iruzuraren aurka Borrokatze urteko Plana Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatze Batzordearen baitan egiten dela. Organo hori ekainaren 9ko 1634/2009 Foru Aginduan araututa dago. Horren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunean Iruzuraren aurka Borrokatze Batzordea sortu zen, eta funtzionamenduari buruzko arauak xedatu ziren. Geroago, urriaren 31ko 2050/2019 Foru Aginduak eta apirilaren 19ko 720/2021 Foru Aginduak aldatu zuten (biak Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuarenak).

Aipatutako egitura organikoaren aldaketen ondorioz, Ogasuneko eta Finantzetako foru-diputatuaren irailaren 3ko 287/2024 Foru Aginduak (Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatze Batzordea sortu eta haren funtzionamendu-arauak ezartzen dituen ekainaren 9ko 1634/2009 Foru Agindua aldatzen duena) Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurkako Borrokatze Batzordearen osaera egokitu du Ogasun Sailaren egitura organiko berrira.

Xedapen horien arabera, Batzordea organo hauetako titularrek osatzen dute gaur egun:

- a) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia.
- b) Ikuskapen Zuzendariordetza.
- c) Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetza.
- b) Zerga-bilketako Zuzendariordetza.
- e) Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetza.
- f) Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetza.
- g) Zuzeneko Zergen Zerbitzua.
- h) Zeharkako Zergen Zerbitzua.
- i) Zerga Kudeaketako Zerbitzua, zergadunaren profilaren arabera.
- j) Ikuskapena Koordinatzeko Zerbitzua.
- k) Nazioarteko Fiskalitatearen eta Ekonomia Digitalaren Zerbitzua.
- l) Diru-bilketa Betearazleko Zerbitzua.
- m) Zerga-bilketako Prozedura Berezien Zerbitzua.
- n) Zentsua Kontrolatzeko eta Informazioa Kudeatzeko Zerbitzua.
- ñ) Koordinazio eta Barne Kontrolerako Zerbitzua.
- o) Arriskuen Analisisirako Zerbitzua.
- p) Iruzuraren aurkako Borroka Planifikatu eta Koordinatzeko Zerbitzua.



Ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunean informazioa eta laguntza emateko, zerga-bete-beharrak betetzen direla kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko eginkizunak dituzten organo guztiak ordezkatuta daude Iruzuraren aurka Borrokatzeko Batzordean. Batzorde horren barruan, Iruzuraren aurkako Borroka Planifikatu eta Koordinatzeko Zerbitzua da Iruzuraren aurka Borrokatzeko jarduketaren irizpideen proposamenak biltzeaz arduratuko den organoa, eta irizpide horiek Batzordeari helaraziko zaizkio.

Hori guztia kontuan izanik, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 114. artikuluan eta Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko Batzordea sortu zuen ekainaren 9ko 1634/2009 Foru Aginduaren 3. artikuluko 6. atalean ezarritakoa beteta, 2024ko abenduaren 13an, Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurkako Borrokatzeko Batzordeak (aurtengo hirugarren ohiko bilkuran) Bizkaiko Foru Ogasunaren 2025. urterako Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plana osatzen duten irizpide orokorrak onartu ditu. Irizpide horien berri eman behar da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herritar guztiak horren berri izan dezaten.

Azaldutako guztia aintzat harturik,

HAU EBATZI DUT:

Lehenengoa

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 114. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, aditzera ematen dira Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2025. urterako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak, Ebazpen honen eranskin moduan agertzen direnak.

Bigarrena

Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, herritar guztiak honen berri izan dezaten.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 7an.—Ogasuneko zuzendari nagusia, Antonio Pérez Delgado

**ERANSKINA**

Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurka Borrokatzeko 2025. urterako Plana funtsatzen duten irizpide orokorrak.

I. SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zerga-sistema eraginkortasunez aplikatzea. Eskumen hori egikartzeko, administrazio honen oinarrizko bi zereginetako bat da iruzur fiskalaren aurka borrokatzea; bestalde, zergapekoei laguntza eman behar die, beren betebeharrak bete ditzaten, lan hori ahalik eta gehien erraztuta. Izan ere, zerga-iruzurraren aurkako borrokan etengabe hobetzeak bermatzen du zerga-sistemaren helburu nagusia lortzea, hau da, gastu publikoak ordaintzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea, errenta eta aberastasuna behar bezala banatzea ahalbidetuta.

Zerga-iruzurraren aurkako borroka zeregin konplexua da, etengabe aldatzen ari diren hainbat ikuspegitik aurre egin behar baitzaio; hori dela eta, ezagutzak eta teknologiak eskura jartzen dizkioten baliabide guztiak erabili behar ditu zerga-administrazioak.

Zerga-iruzurraren kontra borrokatzeko, kontrol-neurriak ez ezik prebentzio-neurriak eta informazioa lortzeko neurriak ere erabili behar dira, zerga-betebeharrak betetzen dituzten pertsonen jokabidea betetzen ez dituztenen eta elkartasunik eza erakusten dutenen aurrean indartzeko.

Zergak aplikatzeko organo guztien lanaren funtsezko helburua (zergak kudeatu, ikuskatu eta biltzen dituzten organo guztiena) zergak ordaintzeko betebeharrak orokorra bermatzea da. Beraz, beren ekimenak herritar guztiei zuzendu behar zaizkie, pertsona fisiko zein entitateei (handi, txiki eta ertainei), eta ekimen horiek segmentatu behar dira pertsona eta entitate horien ezaugarri ekonomikoen arabera, jarduten duten ekonomia-sektorearen arabera, iruzur egiteko arrisku-profilaren arabera eta beste zergadunekin dituzten harremanen arabera. Iruzurra egiten den kasu guztien kontra egitea eta bakoitzean erantzunik egokiena ematea da helburua.

2025. urtean, hauek izango dira Bizkaiko Foru Ogasunaren jarduketak gidatuko dituzten jarraibide nagusiak:

Zergadunei berri eman eta laguntzea

2009an Iruzuraren aurka Borrokatzeko Batzordea sortu zenetik metatutako espezializazioak agerian uzten du zergadunei beren zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko jarduketak oso garrantzitsuak direla, eta horrek berez aitortutako zerga-zorra handitzea dakarrela.

Bizkaiko Foru Ogasunaren premisa da herritar gehienek beren betebeharrak fiskalak betetzen dituztela; horregatik, funtsezko helburuetako bat da informazioa eta laguntza ematea, zerga-betebeharrak borondatez bete ditzaten.

Horregatik, Bizkaiko Foru Ogasuna ahalegin handiak egiten ari da zergadunei laguntzeko, aurre egin behar dieten administrazio-kargak murrizteko, zerga-betebeharrak borondatez betetzea errazteko eta, horrela, ez-betetzea saihesteko.

Zehazki, 2025. urtean lan-ildo hauek indartuko dira:

1. Aurrez aurreko, telefonoko eta telematikako kanalen bidez zergadunei arreta ematea, zerga-betebeharrak erraz bete eta eskubideak erabil ditzaten. Arreta-zerbitzuak hobetu eta erantzute-denbora laburtzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aintzat hartuko dira.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen funtzionaltasunak eta edukiak zabaltzea, bereziki, zerga-administrazioak atari elektroniko horretan duen presentziari eta ataria zerga-aholkularitzaren sektoreko profesionalen eskaeretara eta beharretara egokitzeko mailari dagokienez.
3. Zerga-betebeharrei erantzuteko orduan, zergadunak eta haien zerga-ordezkariek eraginkortasunez nahasteko jarduketak, batetik, zergadunaren ikuspegia hobe ulertze aldera eta, bestetik, zerga-eskakizun horiek betetzean guztion laguntza handiagoa izate aldera.

**BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua amaitzea**

BATUZ sistema gure ingurunean bakarra den proiektua da jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridiko eta entitate guztiek zerga-betebeharrak –edo zein delarik ere haien izaera, tamaina edo jarduera-sektorea– betetzen dituztela kontrolatzeko eta laguntzeko.

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 10eko 32/2024 Ebazpenak (Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzuraren aurkako 2024ko Planaren irizpide orokorrak argitaratzen dituena) adierazi bezala, azaroaren 22ko 8/2023 Foru Arauak BATUZ sistema sei hilean behingo bost denbora-tarteetan behin betiko ezartzeko prozesua onetsi zuen. Prozesu hori 2024ko urtarrilaren 1ean hasi zen gaitasun eta tamaina handieneko zergadunentzat, eta 2026ko urtarrilaren 1ean amaituko da.

BATUZ sistema behin betiko ezartzeko bi urteko prozesu honen helburua da honako hauei sistemaren betebeharrak modu eraginkorrean betetzeko behar duten denbora ematea: jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoei; mikroenpresei, enpresa txiki eta ertainei (neurri txikiko kooperatibak barne); eta Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita eta partzialki salbuetsita dauden entitateei; edo irabazi asmorik gabeko entitateentzat ezarritako zerga araubide berezia aplikatzen duten entitateei. Aldi berean, aldaketan parte hartzen duten eragile guztiak baldintza ezin hobeetan egokitu ahal izatea ere ahalbidetzen da, hala nola, zergadunak ez ezik, haien zerga-aholkularitzak, zergak betetzeko softwareak garatzen dituzten enpresak eta xede horretarako ekipamendu informatikoaren hornitzaileak. Era berean, bi urteko egutegi horri esker, Bizkaiko Foru Ogasunak lagun diezaike pertsona horiei guztiei prozesu horretan. Horregatik, zergadunak denbora-tarteetan banatzeko orduan, kontuan hartu da BATUZ sistema aplikatzeko trantsizio-prozesuak burutzeko zailtasun handiagoa edo txikiagoa.

Ildo horretan egindako lehen urratsetako bat izan zen BATUZ sistema behin betiko ezartzeko unitatea sortzea Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren azaroaren 19ko 609/2023 Foru Aginduaren bidez. Unitate horren zeregina da proiektu hori abian jartzen dela ziurtatzea, zergadunei Bizkaiko Foru Ogasunarekin duten harremanean laguntza egokia ematen zaiela bermatzeko langileen laguntzarekin. Gainera, zerga-eredu berriak, tresna informatikoak eta proiektuarekin lotutako beste zenbait alderdi ere kudeatuko dituzte.

Zehazki, azaroaren 22ko 8/2023 Foru Araua argitaratu zenetik (BATUZ sistema behin betiko ezartzeko neurriak onartzen dituena) 2023ko azaroaren 23ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bizkaiko Foru Ogasunak 135.000 informazio-gutun baino gehiago bidali dizkie sistema hori bete behar duten pertsonari, horretarako jarraibide zehatzekin.

Gutun horiek sisteman sartzeko denbora-tarte bakoitza iraungi baino nahiko lehenago igorri dira, eta 2025. urtean ere zergadunei informazio-gutunak bidaliko zaizkie prozesua bukatzeko (BATUZ 2025eko uztailaren 1etik aurrera ezarri behar dutenei eta, azkenik, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarri behar dutenei).

Sartzeko denbora-tarte bakoitzeko jakinarazpenak emateko kanpainak, era berean, proiektu hau kudeatzeko sortutako arreta-kanal espezifikoekin osatzen dira, baita web-gunean eta www.batuz.eus web-orriko Gure Gida atarian www.bizkaia.eus argitaratutako dibulgazio-edukiekin ere.

Aldi berean, 2023an eta 2024an, BATUZ sistemaren hirugarren oinarria garatzen jarraitu da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ aurrerantzean), Sozietateen gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenen zirriborroak egitea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, 2023ko urrian, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioaren lehen zirriborroak kalkulatu ziren BATUZi atxikitako pertsona eta erakundeentzat, zergadunek eragiketa guztiak EEELn erregistratzen dituztenean hasten den prozesuan. Gaur egun, zerga honen likidazio-aldi bakoitzean, zergadunek beren aitortpenaren zirriborroak eskatzeko aukera dute, bai hiru hilean behin edo hilero ordaintzen badituzte, bai banaka edo erakunde talde baten barruan ordaintzen badituzte.



BATUZ sistemaren bidez zirriborroak kalkulatzeko prozesua, ordea, ez da oraindik amaitu, Sozietateen gaineko Zerga sisteman sartzeke baitago.

Horretarako, Bizkaiko Foru Ogasuna web-aplikazio berri bat prestatzen ari da Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko. Herritarrek aplikazio hori prest izango dute 2025eko uztailean egingo den zerga horren hurrengo kanpainan. Aplikazio berri horren bidez, aitorpena egiteko egungo laguntza-programa garatu, sinplifikatu eta hobetu da, eta 2026ko kanpainan zergaren zirriborroak integratzea du helburu. Aplikazioaren funtzionamendua hedatzeko asmoz, 2024ko azaroaren 19, 20 eta 21ean 3 informazio-jardunaldi egin dira zerga-aholkularitzentzat, eta 2025eko urtarrilean aplikazio hori irekiko da probak egiteko eskaera egin duten pertsonentzat.

2026. urtean, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioaren zirriborroak kalkulatzeko, hainbat informazio-iturri erabiliko dira: aurreko urteko zergaren aitorpena eta zerga honen zergadunek aurkeztutako ekitaldi bereko ordainketa zatikatua; Foru Ogasun honen datu basea, aurreko urteetan sortutako zerga oinarri negatiboak, kenkariak eta bestelako zerga kredituak aplikatzeke dauden saldoei buruzkoa; hirugarrenek eta erakundeek aurkeztutako atxikipenen urteko laburpenak eta, aurkeztu bada, kontabilitate-mugimenduen kapitulua.

Jakina denez, kapitulu horri dagokionez, azaroaren 23ko 8/2023 Foru Arauak hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra sartu zuen Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan, zerga honen zergadunek 2022, 2023 eta 2024 zergaldiei dagozkien kontabilitate-mugimenduen kapitulua aurkezteko obligaziorik ez dutela eta kapitulu hori 2025eko zergalditik aurrera betetzea eta aurkeztea borondatezkoa dela zehazteko.

Kapitulu horren aitorpena gaitzeko, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren azaroaren 12ko 422/2024 Foru Agindua argitaratu da 2024ko azaroaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Foru agindu horren bidez onetsi ziren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko kontabilitate-mugimenduen kapitulua zehaztuen funtzional eta teknikoak.

Laburbilduz, aurreko guztiaren arabera, 2026ko uztailean osatuko da BATUZ proiektuaren edukia, BATUZ sistema ezartzen duen uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauak diseinatu bezala.

Hala ere, gaur egun agerian jarri dira jada jarduera ekonomikoak egiten dituzten Bizkaiko pertsona eta erakundeek aurre egin beharreko erronka berriak, hala nola, Enpresak Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen 12. artikuluan ezarritako fakturazio elektronikoen nahitaezko sistemara egokitzea eta Europako Batzordearen Vida (Vat in the digital age) proiektuaren eskakizunetara egokitzea.

Hori dela eta, kontuan hartuta 2026ko urtarrilaren 1ean BATUZ sistemaren ezarpenak Bizkaiko enpresa eta autonomoen %100 hartuko duela, Bizkaiko Foru Ogasunak behar diren neurriak garatu beharko ditu zergadunek ahalik eta gehien bete ditzaten betebeharrak.

Era berean, BATUZ sistemaren informazioa erabilita, zerbitzu informatikoak garatu ahal izango dira, Bizkaiko enpresei finantzaketa lortzen laguntzeko.

Zerga-arloan garrantzia duen informazioa lortu, normalizatu eta aztertzeke jarduketak

Bizkaiko Foru Ogasunak zerga-arloan garrantzia duen informazioaren kalitatea hobetzeko jarduketak egingo dira, eta beste jurisdikzio batzuetatik jasotako informazioa sartuko da nazioarteko informazio-truke automatikoak garatuta eta Interneteko kanal irekietan dauden enpresei buruzko informazio ekonomikoa gehituta.

Eskura dagoen informazio guztia oinarri hartuta, Bizkaiko Foru Ogasunaren organoek zeregin hauek izango dituzte:

Alde batetik, datuen egiazkotasuna eta kalitatea egiaztatzea eta zuzentzea, bai datu-basean bertan, bai sarrerek iragazi eta baliozkotzeko prozesuen bidez.

Bestalde, maila guztietan zerga-garrantzia duten datuak ustiatzea, banaka zergadun bakoitzeko, edo modu masiboan alderagarrien bidez. Alderagarri horiei esker, zergapeko



bakoitzak bere talde homogeenaren batez bestekoarekiko duen jarrera aztertu ahal izango da. Azterlan hori ahalik eta eraginkorrena izan dadin, ezinbestekoa da auditoretza informatikorako tresna bat edukitzea, zerga-administrazioaren beharretara egokitua eta atzeraelikadura-prozesu bat duena.

Ekonomiaren digitalizazioaren erronkei aurre egiteko jarduketak

Zerga-administrazioaren erronkarik handienetako bat da gero eta digitalizatuagoa da-
goen ekonomia batean diharduten pertsona eta enpresei buruzko garrantzizko informa-
zio ekonomikoa eskuratzea, zergadunak identifikatuta eta haien ordainketaren funtsezko
elementuak identifikatuta, kokapenari, bolumenari eta errentagarritasunari dagokienez.

Alde batetik, zerga-betebeharra duten pertsonen merkataritza elektronikoaren bidez
(e-commerce) egin ditzakete beren merkataritza-eragiketak, eta, gainera, bezero gehia-
go lortzea ahalbidetzen dieten plataformak edo bitartekariak erabil ditzakete.

Era berean, operadoreek ordainketa- eta kobrantza-sistema elektronikoak dituzte
metodo tradizionalen ordeko aukera gisa; metodo horiek atzerrikoak izan daitezke,
eta, beraz, ez dute foru-administrazioei eta lurralde erkideko administrazioei informazioa
emateko beharrik.

Azkenik, informazioa eskuratzeko zailtasuna areagotu egiten da kriptoa-
tsio- eta ordainketa-bitarteko gisa erabiltzean.

Beraz, aro digitalaren erronkei aurre egin ahal izateko, administrazioak ingurune eko-
nomikoaren aldatetara eta eskaeretara egokitu behar du erakundea, zerga-betebeha-
rrak betetzen direla bermatzeko.

Hala, zerga-administrazioek lankidetzaren areagotu dute, eta, Europar Batasunaren
eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) interes komunari
jarraikiz (beren estatu kideen artean informazio ekonomikoaren gardentasuna areago-
tzea), eragiketa digitalekin lotutako informazio-betebehar berriak ezarri dira.

Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko lankidetzaren adminis-
tratiboari buruzkoak, hainbat aldatuta izan ditu azken urteotan, Europar Batasuneko zer-
ga-gardentasunaren arloko ekimen berriei lekua emateko.

Zehazki, neurri hauek azpimarra ditzakegu:

- Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentzaraua, DAC 7 gisa ezaguna. Informazio-truke automatiko berri bat ezarri du plataforma digital baten bitartekaritzarekin lotutako errententzat, baldin eta errentak ondasunak saltzeko, zerbitzua emateko, ondasun higiezinak alokatzeko eta garraio bideak alokatzeko eragiketetatik badatoz.
- Mugaz gaindiko ordainketei buruzko informazio-aitorpenaren 379 ereduaren onar-
tzea. Eredu horren bidez, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileen bidez egindako mu-
gaz gaindiko ordainketa jakin batzuei buruzko informazioa eman nahi zaie zer-
ga-administrazioei, Batasuneko kontsumitzaileentzako merkataritza elektronikoari
dagokionez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arloko zerga-betebeharren kon-
trolla erraztuko baitu.
- Kontseiluaren 2023/2226 Zuzentzaraua, 2023ko urriaren 17koa, kriptoa-
tsio- eta diru elektronikorako informazioa automatikoki trukatzeko esparru berria
arautzen duena. Helburua da kriptoa-
tsio bidez egindako transakzioetatik erato-
rritako zerga-betebeharren borondatez betetzea erraztea, baita horien ordainketa
egokia kontrolatzea ere.

Aro digitalari hertsiki lotuta daude neobankuak, banku-bitartekaritzako zerbitzuak es-
kaintzen dituzten finantza-erakunde %100 digitalak. Gero eta kuota handiagoa hartzen
dute ordainketa-merkatuan, baita zuzeneko inbertsioan ere. Normalean, edozein estatu-
ko agintarien aurrean baliozko moduan erregistratuta dauden enpresak dira, baina, ko-
katzeko askatasunaren eta zerbitzuak libreki emateko eskubideen arabera, finantza-zer-
bitzu digitalak eman ditzakete Espainian, inolako presentzia fisikorik izan gabe.



Hori dela eta, areagotu egingo dira informazioa emateko beharrik ez duten kobrantza-bitartekoak erabiltzen dituzten zergapekoen gaineko kontrolak, bitarteko alternatibo horiek saiheste fiskalerako bide izan ez daitezzen.

Aurretik aipatutako jarduketa-ildoekin bat etorrira, iruzurraren aurka borrokatzeko jarduketak zehaztuko dira jarraian. Jarduketa horiek, aurreko urteetan bezala, 3 kategoriatan sailkatzen dira. Nolanahi ere, metatutako esperientziak agerian utzi du kategoriatan berrantolatzea eta sinplifikatzea komeni dela, zerga-administrazioaren egiaztatze- eta kontrol-operatibora hurbiltzeko. Horretarako, lehenik eta behin, prebentzio-jarduketak jarri behar dira, eta talde bakar batean sartu behar dira informazioa lortzeko eta erregularizatzeko jarduketak; hala, hobetu egiten da jarduketa horien emaitzen aurkezpena.

a) *Lehenik eta behin, prebentzio-jarduketak*

Jarduketa horiek barnean hartzen dituzte hainbat neurri, bi helburu hauek betetzeko: batetik, pertsonen irakastea jakin dezaten kalitatezko zerbitzu publikoak mantentzeko zer garrantzitsua den bakoitzak bere ahalmen ekonomikoaren arabera zerga-betebeharrak betetzea; eta, bestetik, zergadunen iruzurrezko jarduketak egin aurretik detektatu eta saihestea. Horrez gain, laguntza eta informazioa emateko arloa garatuz gero, murriztu egiten dira zergadunek jasan beharreko administrazio-kargak, eta zergadunek errazago betetzen dituzte beren betebeharrak beren borondatez, eta hala ez-betetzeak saihesten dira.

Beraz, jarduketa horiek, berez, ez dute detektatutako iruzurraren ondorioz diru gehiago lortzea ekarriko, beren helburua iruzur hori ez gertatzea delako. Gure ustez, horixe izan beharko litzateke edozein zerga-administrazioaren helburu nagusia: iruzurra saihesteko modua lortzea. Horretarako, gure herritarrek bidezko zergen garrantzia uler dezaten lan egiten dugu, zerga-betebeharrak borondatez bete ditzaten. Era berean, lan egiten dugu betetze hori errazteko eta kontrolak ezartzeko, iruzurra gertatu baino lehen detektatu eta saihestu ahal izateko, eta iruzur egin dezaketen pertsonak beren zerga-betebeharrak borondatez bete ditzaten konbentzitzeko.

b) *Bigarrenik, informazioa lortzeko eta erregularizatzeko jarduketak*

Jarduketa horiek prebentzio-jarduketa egin ondoren egiten dira, zerga-betebeharrak betetzeko epea amaitu ondoren. Informazioa lortzeko jarduketan helburu nagusia da zerga-arloan garrantzia duen informazioa normalizatzea eta aztertzea, eta hori funtsezkoa da erregularizatzeko eta kobratzeko jarduketan aurreko fase gisa. Zerga-administrazioak datu ugari eta egiazkoak izateak aukera ematen du aipatutako erregularizazioa eta kobrantza lortzeko prozeduren hartzaila izango diren zergadunen hautaketa hobetzeko, eta, era berean, prozedura horien garapena bera hobetzeko.

Beraz, dagoeneko egin diren irregulartasun fiskalak detektatzeko eta irregulartasun horiek erregularizatzeko eta kobratzeko beharrezkoa den informazioa ematea helburu duten jarduketak ere badira. Aldi berean, zerga-administrazioak iruzurgile izan daitezkeen pertsonen buruz gero eta gehiago jakiteak lagundu dezake haietako askok borondatez bete ditzaten zerga-betebeharrak. Horrela, jarduketa horiek, batetik, prebentzio-helburua dute, eta, bestetik, zerga-zorra erregularatu eta kobratzeko helburu garbia.

Erregularizazio-jarduketak, berriz, kasu hauetan egin beharko dira: informazioa lortzeko jarduketek ez badute lortu detektatutako balizko gorabeherak argitzea, edo irregulartasun horiek berresten badira eta analisi sakonagoa egiteko aukera ematen duen prozedura bat behar bada. Horrela, zergadunen egoera fiskala erregularizatzeko jarduketak dira, kudeaketa eta ikuskapeneko organoen prozeduren bitartez.

c) *Hirugarrenik, kobrantza-jarduketak*

Zerga-bilketako organoen prozeduren bitartez zerga-zorrak ordaintzea lortzeko jarduketak dira.

Beraz, jarduketa horiek, batetik, zergapekoek egindako aitorpen eta autolikidazioen bidez sortutako zorrak kobratzeko aukera ematen dute, eta, bestetik, zergak aplikatzeko prozeduretan zerga-administrazioak alde aurretik iruzur egin dien eta likidatu dituen zerga-zorren zenbatekoak kobratzeko aukera ematen dute.



Nolanahi ere, iruzurraren aurkako borrokan egingo ditugun hiru jarduketa-kategoriak aztertu ondoren, esan behar da ezen, kategoria horietan eraginkorrak izateko, gure ustez, hiru jarduketa-motak direla beharrezkoak: prebentzio-jarduerak, iruzurra saihesteko; informazioa eta erregularizazioa lortzekoak, zerga-irregularitasunak detektatzeko eta irregularitasun horiek kuantifikatzen laguntzeko; eta kobrantza-jarduketak, hain zuzen ere helburu hori lortzeko, zerga-zorrak kobratzea. Beraz, guzti-guztiak garrantzitsuak eta elkarren osagarriak direla esan dezakegu.

Gauzak horrela, agerian jarri behar da iruzurraren aurkako jarduketak egiteko, neurri konplexu eta zabal batzuk abiarazi behar direla, zergadun-talde handienetan eragina izan dezaketenak; hori dela eta, lanok ezin dira urte bakar batean egin. Iruzurraren aurkako jarduketak behar beste denboraz jarraitzea bermatu behar da, eragiten dieten pertsona guztiengana iristeko eta, horrez gain, urte horietan egiaztapen eta erregularizazioaren pean dauden zergadunen zerga-betebeharren betetze maila ondorengo zergaldietan jaisten ez dela ziurtatzeko.

Hori dela eta, kategoria bakoitzean geroago azalduko diren jarduketa-irizpideak urte anitzekoak izan daitezke. Izan ere, ohikoa da Bizkaiko Foru Ogasuneko organoek garatzen dituzten jarduketak urteaz harago luzatzea, haien konplexutasunaren, une bakoitzeko lan-kargaren edo plan honetan kontuan hartu gabeko jarduketak behar dituzten eta berehalako erantzuna behar duten ustekabeko aldagaien arabera.

Jarduketa horiek guztiak gauzatzeko, oso garrantzitsuak dira bai informazioa tratatzeko aurrerakuntza teknologikoak, baita Bizkaiko Foru Ogasuneko zergen aplikaziorako organoen arteko koordinazioa eta organo horien eta beste antolakunde edo erakunde batzuen arteko lankidetzaren ere.

Eta, azken horri dagokionez, eta Bizkaiko Foru Ogasunaren ohiko praktika denez, jarduketa horiek gauzatzeko jarduketa horiek judizializatzea eragin dezake, edo delitu-salaketak jartzea, ikertutako jardueretan legez kontrako jokabideak egon daitezkeela pentsaraz dezaketen zantzuak antzematen direnean.

II. PREBENTZIO-JARDUKETAK

Prebentzio-jarduketak hiru helburu betetzen dituzte: lehenik eta behin, gure herritarren kontzientzia fiskala hezi eta sendotzeko helburua dute, hau da, guztiok gastu publikoari aurre egiten lagundu behar dugula dioen pentsamendua sendotzeko, pertsona bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatuko dituzten bidezko zergen bidez. Aldi berean, zergadunei laguntza eta informazioa emateko arloa garatuta, beren betebeharrak borondatez betetzea errazten zaie, eta zerga-administrazioarekin dituzten harremanetan segurtasuna eta konfiantza ematen zaie. Hirugarrenik, prebentzio-jarduketak iruzurrezko jarduketak egin aurretik detektatu eta saihesteko neurriak dira.

Ildo horretan, prebentzio-jarduketen oinarri nagusietako bat da zergadunari bere zerga-betebeharrak betetzen laguntzea, eta, beraz, administrazio honen ustez, ez da zigorrik jarri behar garrantzi handikoak ez diren akats edo hutsegiteak egiten direnean, batez ere administrazioari kalte ekonomikorik eragiten ez zaion kasuetan. Hori dela eta, nabarmendu behar da, zerga-betebeharrak betetzen dituzten zergadun horien onerako, 2025. urtean tresna automatizatu berri bat sartuko dela Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-errekarguen sisteman, zergadunen akatserako eskubidea bermatzeko. Zehazki, aitortzeko eta ordaintzeko betebeharrak betetzeko epeak amaitzen diren uneari egiten dio erreferentzia, eta akatsa onargarria den aldia zehazten du; beraz, aplikatzekoak diren errekarquak arindu egingo dira.

Horrela, errekarquen konfigurazioak, zergadunak bere aitorten- eta ordaintze-betebeharrak betetzeko duen borondate nabaria kontuan hartuta, garaiz kanpoko aitortenagatik errekarquaren eta errekarqu exekutiboaren ondorio ekonomikoak murriztu nahi ditu. Horregatik, aitortzea borondatezko epea amaitu eta hurrengo 3 egun baliodunen barruan aurkezten bada edo epe exekutiboko lehen 3 egun baliodunen barruan ordaintze efektiboa egiten bada, garaiz kanpoko aitortenagatik errekarqua eta errekarqu exekutiboa nabarmen murriztuko dira, ehuneko 5etik ehuneko 0,5era.



Horrez gain, honako lan-ildo hauek nabarmendu ditzakegu 2025eko prebentzio-jarduketan ardatz egituratzaile gisa:

1. Zergadunei informazioa eta laguntza ematea

Bizkaiko Foru Ogasunaren premisa da herritar gehienek beren betebeharrak fiskalak betetzen dituztela; horregatik, funtsezko helburuetako bat da informazioa eta laguntza ematea, zerga-betebeharrak borondatez bete ditzaten.

Horregatik, Bizkaiko Foru Ogasuna ahalegin handiak egiten ari da zergadunei laguntzeko, aurre egin behar dieten administrazio-kargak murrizteko, zerga-betebeharrak borondatez betetzea errazteko eta, horrela, ez-betetzea saihesteko.

Era berean, Bizkaiko Foru Ogasunaren helburua da zergadunei arreta presentziala, telefonikoa eta telematikoa bermatzea, kanal anitzaren aldeko apustua eginda, zergadunek zerga-betebeharrak bete eta eskubideak erraz gauzatu ahal izan ditzaten, horretarako erabili behar duten bidea digitala izan edo ez.

2025. urtean, Bizkaiko Foru Ogasunak, bereziki, honako jarduketak hauek gauzatu ditu:

1. Zerga-betebeharrak betetzea errazteko eta zergadunek beren eskubideak aurrez aurre, telefonoz eta bitarteko telematikoen bidez erraz egikaritu ahal izateko, 2025. urterako Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez bidali ahal izango dira 650 ereduak —Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa edo likidazio-eskaera egitekoa— eta 652 ereduak —Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena, bizi-aseguruen polizak, horien emaitza dirua sartzea—.
2. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen funtzionalitateak eta edukiak handitzeko eta, bereziki, aholkularitza fiskaleko profesionalen eskarietara egokitzeko, funtzionalitate berri hauek garatzen ari dira:
 - Abisu-sistema berri bat, interes orokorreko edo partikularreko gertaera edo inguruabarren berri emateko.
 - Jakinarazpenen ontziaren erabilgarritasuna eta zergen atari profesionaleko herritarren karpeta hobetzea, espedienteak eta komunikazioak hobeto eta arinago hautatzeko aukera ematen duten iragazkiak sartuta.
 - Web-zerbitzuen plataforma bat sortzea, autolikidazioak eta zerga-aitorpenak fitxategiak automatikoki trukatzuz egin ahal izateko («makinatik makinarako komunikazioak»).
 - Autolikidazioak eta zerga-aitorpenak egin eta bidaltzeko web-plataforma berri bat diseinatu eta garatzea.

Hobekuntza horietako batzuk 2024. urtearen amaieran ezarri dira, eta, beraz, 2025. urtean erabileraren emaitzak ikusgai egongo dira.

3. Zergadunek eta haien ordezkari fiskalek zerga-betebeharrak betetzeko prozesuan aktiboki parte hartzeko jarduketak, zergadunaren ikuspegia hobeto ulertzeko eta guztiek zerga-betebeharrak betetzeko lankidetzak handiagoa izan dezaten. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Denontzat mandatu-planaren barruan, komunikazio-kanal bat garatzen jarraituko da zerga-aholkularitzako profesionalak ordezkatzeko dituzten elkarteekin eta dimentsio handieneko erakundeekin iradokizunak jasotzeko eta, horrela, zerga-betebeharrak betetzea erraztuko duen orientazio- eta laguntza-talde bihurtzeko.
4. Zergadunei laguntza emateari dagokionez, eta zerga-betebeharrak betetzea errazteko helburuarekin, komunikazio-kanpainak egiten jarraituko da, zergei eragiten dieten arau- eta kudeaketa-aldaketen berri emateko, modu argi eta ulergarrian, baina zerga-terminologiak eskatzen duen zehaztasuna alde batera utzi gabe, aurreko urtean egin den bezala. Berezi, BATUZ sistema behin betiko ezartzetik eratorritako betebeharrak dagokienez, eta berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko Zerga bereziari dagokionez Europar Batasunaren barruan eskurapenak egiten dituzten pertsonen betebeharrak ingurukoak.



Eta, era berean, zerga-betebeharrei erantzutearen gainean zergadunen ikuspegi ulertzeko jarduketak. Ildo horretan kokatzen dira Bizkaiko Foru Ogasunaren jarduketak, jarduera ekonomikoen garapenean enpresen berezko prozesuak kontuan hartzen dituztenak eta horietan zergak betetzeko prozesuak sartzen dituztenak, hala nola, BATUZ sistema («zergak diseinuaren bidez betetzeko» jarduketak deritzana).

Halaber, aitorpenak bidaltzeko bide telematikoa orokortzen jarraitzen da, herritarrek identifikazio elektronikoko sistemak aktibatzea errazteko, bereziki, Bak eta Bakq ziurtagiriak. Sistema horiek zerga-administrazioarekiko harremanetan ez ezik, Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako sailekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde eta organismo publiko batzuekin egin beharreko kudeaketan ere erabil daitezke.

Bestalde, zergadunei informazioa eta laguntza emateko jarduketan kategoriatan honen barruan, administrazioa aurrez lotzeko prozedurak erabiltzea dago, gure zerga-zuzenbidearen segurtasun juridikoa eta ziurtasuna ezartzeko eta, horrela, operadore ekonomiko guztiei jarduketaren zerga-ondorioen egonkortasun-, konfiantza- eta aurreikusgarritasun-berme nahikoak emateko.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kanpaina

Tradizionalki, Bizkaiko zerga-administrazioak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoriozko betebeharrak betetzen laguntzeko garatzen ditu baliabide gehienak (ekonomikoak, informatikoak, giza baliabideak), zerga horren eraginpean dauden zergadunen kopuru handia eta profil-aniztasuna kontuan hartuta.

Jakina denez, 2021ean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kudeaketa-eredu berria ezarri zen; horri jarraikiz, Foru Ogasunak zergadun guztien eskura jartzen ditu Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren zirriborroak, zerga-administrazioaren esku dauden datu guztiekin batera.

Hori dela eta, 2025. urteko ahaleginek, aurreko urteetako bezalaxe, eredu hori finkatu eta garapen-maila hobetzeko helburua izango dute, zergadunei zerga-betebeharrak betetzea errazteko.

Ildo horretan, Foru Ogasunak zergadunei aurrez aurreko arreta emateko zerbitzuak indartzen jarraituko du, zergadunei aitorpenak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzen laguntzeko.

Zehazki, 2025ean egingo den kanpaina, aurreko urteetan bezala, BATUZ sistemari borondatez atxikitako eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen PFEZaren aitorpen-zirriborroak kalkulatzeko, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan idatzi duten informazioa hartuko da oinarri, eta, zehazki, «TicketBai!» software bermatzailaren bidez jaulkitako fakturen informazioa.

2025. urtean egingo den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) kanpainarako berrikuntza da web-formatuko simulagailu bat. Simulagailu horrek aurreko ekitaldietan abian jarritako laguntza-programa ordezkatu du, urtea itxi aurretik aitorpenen emaitza kalkulatzeko balio zuena —hura erabili ahal izateko alde aurretik artxibo bat deskargatu behar zen—. Foru Ogasunaren web-orritik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik sartu ahal izango da, bi bertsioetan, hau da, zergen arloko atari profesionaletik eta herritarren ataritik.

Aurrekoa baino bertsio errazagoa da, eta tresna berri honen helburua da zergadunei 2024ko PFEZaren simulazioak egiten laguntzea, horrela, aurrez kalkulatu eta planifikatu ahal izan dezaten hurrengo aitorpenaren emaitza.

Horrela, interesdunek ekitaldia bukatu aurretik baloratu ahal izango dute, besteak beste, etxebizitza-kontura ekarpenak egiteko aukera edo ohiko etxebizitza erosteagatik kreditua amortizatzea, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei ekarpenak egitea edo, jarduera ekonomiko bat eginez gero, I+G+b proiektuak finantzatzeko edo kultura sustatzeko kontratuak egitea.



3. BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua amaitzea

Ebazpen honen sarreran adierazi den bezala, BATUZ sistema da Foru Ogasuna azken urteotan bultzatzen ari den proiektuetako bat. Sistema hori jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitate guztien —eragiketen tamaina edo bolumena edozein dela ere— zerga-ordainketa kontrolatzeko eta laguntzeko estrategia integrala da. Horretarako, zerga nagusiak kudeatzeko eredu berriak ezartzen dira, zergadunek errazago bete ditzaten zerga-betebeharrak.

BATUZ hiru elementu hauek osatzen dute:

- «TicketBai!» foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren egitasmo komuna. Horren helburua da zergadunen fakturazio-softwareetan zerga-administrazioari jarduera ekonomikoaren ondoriozko diru-sarrerak kontrolatzea; eta, bereziki, ondasunak eta zerbitzuak —gehienetan, eskudirutan kobratuta— azken kontsumitzaileei ematen dizkieten sektoreetako jarduerak kontrolatzea ahalbidetuko dioten zenbait lege-betebehar eta betebehar tekniko ezartzea.
- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona guztien (fisikoak zein juridikoak izan) informazio-betebeharrak parekatzea, guztientzat eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eramateko betebeharra ezarrita.
- Bizkaiko Foru Ogasunak zergadunen esku aitortpenen zirriborroak jartzea, zerga-betebeharrak betetzea errazteko, beren jarduera ekonomikoaren etekinak zerga-petzen dituzten zerga nagusiei dagokienez.

BATUZ 2022ko urtarrilaren 1ean jarri zen abian, borondatezko epean sistema honetara borondatez atxikitako 16.000 zergadun baino gehiagorentzat.

2022an bertan, «Egiaztatu zure faktura» aplikazioaren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunak aukera eman zien «TicketBai!» sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturen hartzzaileei egiaztatzeko —Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez— faktura horiek jaulki dituzten zergadunek faktura horiek eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuan erregistratu behar dituzten ala ez. BATUZ sistemaren funtsezko osagaia da zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko; Bizkaiko zergadunen kontzientzia fiskala indartzeko balio du, aukera ematen baitie, nahi izanez gero, ordaindu dituzten ondasun eta zerbitzuen erosketak ondasun horiek saltzen edo zerbitzu horiek ematen dituzten enpresek Ogasunean aitortzen dituzten eragiketak diren egiaztatzeko.

Hala ere, 2023. urtearen amaieran 74.000 pertsona fisiko eta sozietate baino gehiago oraindik sisteman sartu gabe zeudenez, Bizkaiko Batzar Nagusiek azaroaren 22ko 8/2023 Foru Araua onartu zuten, BATUZ sistema behin betiko ezartzeko prozesua agintzeko asmoz. Hala, 2024ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2026ko urtarrilaren 1ean amaituko diren nahitaez sartu beharreko sei hileko 5 denbora-tarte ezarri ziren, gaitasun handieneko zergadunentzat.

2024ko urtarrilaren 1ean eta uztailaren 1ean sistema behin betiko ezartzeko lehenengo bi denbora-tarteak igaro direnez, gaur egun 52.000 zergadun baino gehiago ari dira beren fakturak igortzen «TicketBai!» software bermatzailearen betekizunekin, eta beren eragiketak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuan idazten, horretarako ezarritako epeetan. Izan ere, 2024. urtean, guztira, 450 milioi eragiketa baino gehiago jaso dira sistema honetan; 2023. urtean, berriaz, 219 milioi eragiketa jaso ziren.

Lehenengo bi denbora-tarte horietan zergadun hauek sartu dira:

- 2024ko urtarrilaren 1ean, mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat hartzen ez diren Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak.
- Eta 2024ko uztailaren 1ean, pertsona fisikoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadunak, baldin eta mikroenpresak, enpresa txikiak edo ertainak badira, eta industria-, fabrika-, eraikuntza- eta garraio-jarduerak edo finantza-, zuzenbide-, aseguru-, alokairu- eta osasun-jardueretan aritzen badira; edo gainerako jarduera profesionalak egiten badituzte, hezkuntza- eta kultura-jarduerak salbu.



Era berean, 2025eko urtarrilaren 1eko eta uztailaren 1eko sistemara sartzeko denbora-tarteetan, bereziki, honako hauek sartzen dira: pertsona fisikoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainak diren pertsona juridikoak, baldin eta haien jarduera nagusia merkataritza (handizkako edo txikizkako) edo ostalaritza bada; beraz, denbora-tarte horiek funtsezkoak dira sistema garatzeko.

Azkenik, 2026ko urtarrilaren 1ean, honako hauek ezarri behar dute BATUZ sistema: Sozietateen gaineko Zergatik guztiz eta partzialki salbuetsita dauden entitateek, 4/2019 Foru Arauari atxikitako irabazi-asmorik gabeko entitateek eta pertsona fisikoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek eta pertsona juridikoek, baldin eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzan edo hezkuntzan aritzen diren edo kultura-zerbitzuak egiten dituzten mikroenpresa, enpresa txiki edo ertainak badira. Azkenean, 90.000 zergadun izango direla kalkulatu da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, 2025an, honako zeregin hauek gauzatuko dira:

- Azaroaren 22ko 8/2023 Foru Arauak onetsitako behin betiko ezarpen-egutegiaren arabera, pertsonen eta erakundeen BATUZ sistemarako trantsizioa errazteko jarduketak egingo dira.

2025. urtean, ondorengo denbora-tartetik aurrera sistema bete behar duten pertsonen jakinarazpen berriak bidaliko zaizkie, betiere data hori iritsi baino lehen. Jakinarazpenek beren zerga-egoerarekiko informazio egokia izango dute, eta BATUZ sistema betetzeko eskura dituzten zerbitzu eta aplikazio informatikoak azalduko zaizkie.

Zehazki, 2020. urteaz gero, zergadunentzat dibulgazio- eta laguntza-materialak egin dira, sistema errazago bete dezaten. Material horiek www.batuz.eus webgunean eta www.bizkaia.eus webguneko Gure Gida atalean daude, eta hauek dira: bideoak, «Egin zure faktura» aplikazio informatikoen inguruko eta Bizkaiko Foru Ogasunaren EEELa betetzeko eskuliburuak, ohiko galderak eta erantzunak, proiektuan sortzen diren berrikuntzen katalogoa, eta sisteman lehenengo urratsak emateko oinarriko kontzeptuak. Material horiek 2025ean ere garatzen jarraituko dira, eta,aldi berean, zalantza konplexu eta espezifikoen erantzuten jarraituko da telefono bidez eta kontsultei erantzuteko batuz.zergak@bizkaia.eus postontziaren bidez.

Horrez gain, softwarearen enpresa garatzaileei informazio-jakinarazpenak egingo zaizkie «TicketBai!» eta BATUZ softwareek ondo funtzionatzeko dutela ziurtatzeko.

- Sistemaren behin betiko ezarpen-data igaro ondoren, BATUZ betetzera behartuta dauden pertsona fisikoek eta enpresek sistemaren betebeharrak benetan betetzen dituztela egiaztatzea. Hori egiten ez duten pertsona eta erakundeen harremanetan jarriko gara, eta hori betetzeko exijitzeko beharrezkoak diren gainerako jarduketa guztiak egingo ditugu.

Jarduketa horiek 2024an hasi ziren, eta indartu egin beharko dira, pertsona juridikoek eta fisikoek fakturak «TicketBai!» egiteko eta entregatzeko betebeharrak behar bezala betetzen dituztela egiaztatzeko aurrez aurreko jarduketak areagotuta, baldin eta eragiketa bolumen handiagoa egiten badute kontsumitzaile partikularrei ondasunak entregatzean eta zerbitzu ematean.

- «TicketBai!» software bermatzailearen erregistroan erregistratutako softwareak garatzen dituzten enpresek sistemaren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko herritarren eta erakundeen eskura jarri dituen aplikazioei funtzionaltasunak gehitzea, BATUZ sistemako baldintzak betetzeko.
- Eta zergadunek eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburuan egiten dituzten oharrak Ogasunaren datu-baseetan zuzen erregistratzen diren egiaztatuko da, batez ere, eragiketak masiboki erregistratzen dituzten zergadunen kasuan; hala badagokio, sistemen errendimendua hobetzeko egokitzapenak egingo dira.

Gainera, eta gorago adierazi den bezala, BATUZ sistemaren hirugarren oinarria PFE-Zaren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortzen



zirriborroak egitea da. Lehenengo bi zergen zirriborroak kalkulatzeko prozesua amaitu bada ere, oraindik ez da sartu Sozietateen gaineko Zergan.

Horretarako, Bizkaiko Foru Ogasuna web-aplikazio berri bat prestatzen ari da Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko. Aplikazio hori 2025eko uztailean egingo den zerga horren hurrengo kanpainan egongo da erabilgarri herritarrentzat. Aplikazio berri horren bidez, aitortpena egiteko egungo laguntza-programa garatu, sinplifikatu eta hobetu da, eta 2026ko kanpainan zergaren zirriborroak integratzea du helburu.

Ondorioz, 2025. urtean Bizkaiko Foru Ogasunak aplikazio berri hori abian jarri behar du, eta, aldi berean, haren funtzionamendua azaltzeko kanpaina bat egingo du. Kanpaina hori zerga ordaintzen duten zergadunei, haien zerga-aholkularitzei eta eremu horretan laguntzen duten zergak betetzeko softwarea garatzen duten enpresei bidaliko zaie, eta behar besteko aurrerapenarekin ezarriko ditu trantsizio horretan sor daitezkeen zailtasunak eta gorabeherak ebazteko bide egokiak.

Kanpaina hori 2024an hasi da jada, eta 3 dibulgazio-jardunaldi egin dira azaroaren 19an, 20an eta 21ean, zerga-aholkularitzaren sektorearentzat. Ondoren, 2025eko urtarilean, aplikazioa zabalduko da probak egiteko eskatzen duten pertsonentzat. Kanpainan zehar, informazio-jardunaldi berriak egingo dira zerga honen aitortpenak egin behar duten zergadunen tipologia ezberdinentzat, hala nola, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainez gain, zergadun handientzat eta zerga-baterakuntzaren araubidearen arabera zergak ordaintzen dituzten enpresa taldeentzat.

Azkenik, Bizkaiko Foru Ogasunak dagoeneko amaitu ditu 2025. urtetik aurrera eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren kontabilitate-mugimenduen kapituluaren aitortpena egiteko beharrezkoak diren arau- eta informatika-garapenak.

Hala, 2026ko Sozietateen gaineko Zergaren kanpainan, 2025eko zergaldiari dago-kionez, zergadunek kapitulu honetan borondatez emandako informazioarekin eta informazio-iturri osagarri batzuekin, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioaren zirriborroak egingo dira.

Horregatik, Bizkaiko Foru Ogasunak zirriborro horiek kalkulatzeko beharrezkoak diren garapenak bukatu beharko ditu 2025ean, eta, horrela, BATUZ proiektuaren irismen osoa lortuko da, uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauan ezarri bezala.

4. Zergei buruzko hezkuntza-modulua

Foru Ogasun honen funtsezko helburuetako bat da herritarren kontzientzia fiskala indartzea eta, bereziki, hezkuntza-arloko ekintzak garatzea, gizarte osoak guztion ongiri eusten laguntzeko beharra hobeto ulertzea sustatuko dutenak.

Horregatik, Bizkaiko Foru Ogasunak, Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailarekin eta Ogasuna eta Ekonomia Sailarekin eta Arabako eta Gipuzkoako foru-ogasunekin lankidetzan, ikastetxei zuzendutako zergei buruzko hezkuntza-modulu bat ezarri nahi du.

2018. urteko lehen seihilekoan, zergei buruzko hezkuntza-modulua lehenengo aldiz irakatsi zitzaizen Bizkaiko ikastetxe atxikietako derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleei. Moduluan, fiskalitatearen eta foru zerga-sistemaren oinarriak azaltzen dira, baita zergen helmuga ere, konpromiso-jarrerak indartzeko, zergen balio soziala eta gastu publikoarekin duten lotura nabarmenduta.

2021. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek lankidetzaren hitzarmen berria sinatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan, ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat ezartzeko; horrek aukera eman zuen unitatea lanbide-heziketako ikastetxeetan ere irakasteko. Hitzarmena 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan luzatu da Euskal Autonomia Erkidegoak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 2023ko maiatzaren 18an erabaki ostean.

Aurreko urteetan bezala, 2025ean ere Bizkaiko Foru Ogasunaren helburua da unitatea irakasten duten ikastetxeen kopurua handitzea, Bizkaiko 146 ikastetxetara helduta. Horrela, estaldura-tasa %61 izango da, ikastetxe guztien kopurua kontuan hartuta. Era berean, modulu honetako edukiak adin txikiagokoekin ere landu nahi dira.



5. Zordunen zerrenda argitaratzea

Era berean, zergadunek betebeharrak fiskalak borondatez betetzea eta herritarren kontzientzia fiskala sustatzeko ekimenen artean, gizartean oso gaitzetsita dauden zerga-arloko jokabideei publizitatea emateko neurriak daude. Ildo horretan, aurreko urteetan, Ogasun Publikoari ordaindu barik dauden zor eta zehapenak direla-eta zenbateko handienak zor dituzten pertsonen zerrenda argitaratu du Bizkaiko Foru Ogasunak, eta 2025. urtean ere berdin egingo du. Neurri hori osatze aldera, dagozkion organo judizialek Ogasun Publikoaren aurkako delituen ondoriozko kondena-epai irmoak argitaratzen dituzte Estatuko Aldizkari Ofizialean.

6. Etengabeko espezializazioa eta prestakuntza

Bizkaiko Foru Ogasunak zergadunak segmentutan banatzeko prozesu bat egin du, batetik, zerga-iruzurraren aurkako borroka ahalik eta eraginkorrena izan dadin, eta, bestetik, zergadun-taldeei laguntza egokia emateko, talde horiekin harreman egokiak izateko eta haien zerga-egoera ondo ezagutzeko. Prozesu horren ondorioz, lan espezializatuak egiteko unitate funtzional batzuk sortu dira, beharrezko prestakuntza jaso duten langileez osatuak. Gai dira kalitate handiko zerbitzua emateko horren premia duten Sai-leko organoei, eta badauzkate beren lana egiteko beharrezko tresna informatikoak. Hain zuzen, honako hauek sortu dira: Auditoretza Informatikoko Unitatea, Zergadun Handiei Laguntza Espezializatua Emateko Unitatea, Zergadun Handien Zerga Kontrolerako Unitatea, Nazioarteko Fiskaliterako eta Transferentzia Prezioetarako Unitatea, Zerga Berezien Unitatea eta Zerga-bilketa Ikertzeko Unitatea.

Unitateak osatzen dituzten pertsonen espezializazio-maila eta etengabeko prestakuntza oinarri dira nazioarteko iruzurra prebenitzeko, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu dauden eta Ogasun honen zordun handiak diren enpresak ikertu eta kontrolatzeko, Ogasun Publikoaren aurka delitu egiteagatik kondenatuta daudenen zorrak berreskuratzeke, ezkutuko ondareak ikertzeko, eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei atxikitako ondasunen fabrikazioan eta merkaturatzean diharduten zergapekoei zerga zuzena aplikatzeko (tartean dauden zerga guztiei dagokienez).

Espezializazioari dagokionez, eta kontuan hartuta zuzeneko eta bitartekariarik gabeko transakzioak egiteko aukera ematen duen eredu ekonomikoa gero eta handiagoa dela, talde bat sortu da Ikuskaritzako Zuzendariordetzara eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Plangintza eta Koordinazio Zerbitzura atxikitako pertsonekin. Pertsona horiek kriptoa-tiboetarako buruzko prestakuntza espezializatua egiten ari dira, bi helbururekin: batetik, eragiketarako aitortzen ez dituzten zergadunen bilaketa hobetzea, eta, bestetik, egiaztapen-jarduketarako garapena optimizatzeko ezagutza eskuratzea.

Azkenik, ustelkeriak erakunde publiko zein pribatu guztien funtzionamenduan eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien garrantzia kontuan hartuta, eta ELGak esparru horretan argitaratutako jardunbide egokien gidak erreferentziatzen hartuta, prestakuntza-jarduketarako egingo dira. Jarduketarako horiek bereziki ikuskatzaileentzat izango dira, egiaztapen-prozeduren garapenean ustelkeria-egintzak detektatzeko kontuan hartu beharreko alerta-adierazle ohikoak identifikatzeko, eta egoera horiek detektatzen direnean egin beharreko jarduketarako nabarmenduko dira, bereziki, organo judizialei igorri beharreko txostenen edukia.

7. Beste jarduketa batzuk

Gainera, aurreko urteetan bezala, 2025ean ere Bizkaiko Foru Ogasunak prebenzio-jarduketa hauek garatzen jarraituko du:

- a) Europar Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroa zein Hileko Itzulketen Erregistroa kontrolatzea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruan iruzur egiteko sareak hasierako fasean detektatu eta errotik kentzeko.

Era berean, Gordailu Fiskalen Erauzleen Erregistroaren kontrola egingo da, bertan sartuta dauden baina beren zerga-betebeharrak betetzen ari ez diren sozietateak aurkitzen saiatzeko.



Arlo horretan iruzur fiskala errotik erauzteko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) araudian aldaketa bat egin da, hidrokarburoen gordailu fiskaletatik produktuak ateratzeagatik sortzen den zergaren ordainketa bermatzeko edo aurreratzeko betebeharrari buruzkoa. Aldaketa hori osatzeko, gordailu fiskaletako produktuak erauzten dituzten enpresa guztiek hilerro aurkeztu behar dute Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa. Ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunak jarduketak egin beharko ditu araudi berri honetatik eratorritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautzen dituen Araudiaren 69. artikuluan aipatutako egoera batean dauden entitateen kasuan (araudia abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), lehen esan bezala, zentsuak behar bezala arazteko eta bizitza juridiko-fiskal osoa merkataritza- edo ekonomia-esparruan benetan diharduten sozietateek soilik izan dezaten.
- c) Zergadunek enpresaburu, profesional edo atxikitzaileen zentsuan alta, aldaketa edo baja eskatzeko aitorpenetan jakinarazten dituzten datuak benetakoak diren egiaztatzea; batez ere:
 - Zergapekoek ematen dituzten zerga-egoitzak. Bereziki, berariazko jarduketak egingo dira informazioa lortzeko eta, hala badagokio, erregularizazioa egiteko, Bizkaiko zerga-egoitza lekualdatzeko asmoa adierazi duten pertsona fisikoei dagokienez, aldaketa benetan burutu ez delako zantzuak daudenean, eta zerga-saihestea lortzeko helburuarekin egin bada.
 - Helbidea negozio-zentro gisa ezagunak diren tokietan duten enpresek emandako datuak, iruzur-sareetan nahasiak dauden enpresak detektatzeko. Sozietate-kopuru esanguratsu bat helbideratuta duten establezimenduak edo lokalak identifikatzeko jarduketak egingo dira, jardueraren benetako existentzia egiaztatzeko jarduketak egiteko.
- d) Zerga-zorren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskaeren kontrola, batez ere, zenbateko handiko zorrei buruzko eskaeren kasuan, baita zenbateko handiengatik eratutako bermeen kontrola ere.

III. INFORMAZIOA LORTZEKO ETA ERREGULARIZATZEKO JARDUKETAK

Zergapekoei buruz zergetarako garrantzitsua den informazioa (bai beren egoerari dagokienez, bai beste pertsona eta erakunde batzuekin dituzten ekonomia-harremanei dagokienez) lortu, normalizatu eta aztertzeko jarduketak funtsezkoak dira Bizkaiko Foru Ogasunaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko.

Zergadunen ondasun, errenta eta jarduera ekonomikoei buruzko datuak informazio-iturri hauetatik jasotzen dira:

- Zergadunek egindako zerga-aitorpenak; horien bidez, zergadunek beren buruari buruzko informazioa emateaz gain, haiekin harreman ekonomikoa duten beste pertsona batzuei buruzko datuak ere ematen dituzte.
- Izaera orokorreko informazio-aitorpenak, dagozkion arauen bidez eskatzen direnak, funtsean, ekonomia-jarduerak dituzten zergadunei zuzendurikoak; izan ere, aitorpen horietan, zergadun horiek beste pertsona batzuekin dituzten harreman ekonomiko, profesional eta finantzarioei buruzko informazioa —zergetarako garrantzitsua— ematen da.
- Zerga-administrazioak zergapeko jakin batzuei eginiko banako errekerimenduen bidez informazioa eskuratzeko jarduketa selektiboak, baldin eta informazio hori ematea ez badago modu orokorrean ezarrita, aurreko paragrafoan aipatutako informazio-aitorpenetan bezala.
- Beste administrazio batzuekin datuak trukatzeko prozedura automatikoen bidez eta gainerako zerga-administrazioen jarduketan ondoriozko bat-bateko trukeen bidez lortutako informazioa, baita erakunde eta entitate askorekin formalizatutako lankidetzak-hitzarmenen bidez lortutakoa ere.



Informazio-iturri horiek guztiak funtsezko tresnak dira arrisku fiskalak detektatzeko eta ikuskatuko diren zergapekoak ondo hautatzeko.

Halaber, atal honetan zerrendatzen dira Bizkaiko Foru Ogasunaren kudeaketa- eta ikuskaritza-organoez egindako zergak aplikatzeko prozeduren xede diren pertsonen zerga-egoera egiaztatu, ikertu eta, hala badagokio, erregularizatzeko jarduketak.

Erregularizazio-jarduketak horiei dagokienez, iruzurra gertatu ondoren, hura kuantifikatzea eta zehapena ezartzea da helburua; gainera, iruzurgileak zerga-betebeharrak borondatez betetzea merezi duela konbentzitzeko ere balio dute. Hala ere, jarduketak horiek arrakasta izan dezaten, Bizkaiko Foru Ogasunaren organoez egoki hautatu behar dituzte ikuskatuko dituzten zergapekoak; hautaketa hori, berriz, administrazioak informazioa eskuratzeko jarduketetan lortzen duen eta zergetarako garrantzitsua den informazioaren arabera izango da. Hortaz, zerga-administrazioaren organoak lankidetzan estuan aritzea erabakigarria da beren helburuak betetzen direla bermatzeko.

Bestalde, Bizkaiko Foru Ogasunak badaki zer azkar aldatzen diren iruzur fiskala egiteko moduak; hortaz, urterik urtera, lan-prozesuak etengabe modernizatu eta espezializatzea zerga-administrazioaren oinarriko helburuetako bat da, ebazpen honen goiko ataletan argi eta garbi adierazi den bezala. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Ogasunak Iruzuraren aurkako Borrokaren Plangintza eta Koordinaziorako Zerbitzu berri bat sortzearen aldeko apustua egin du. Zerbitzu horrek, administrazioaren datu-baseetan eskuragarri dagoen informaziotik abiatuta, eta etengabeko bilakaeran dauden aplikazio informatikoen laguntzaz, zergadunak hautatzeko prozesuak hobetuko ditu. Gainera, erregularizazio-prozedurak amaitu ondoren, ezinbestekoa da informazioa Iruzuraren aurkako Borrokaren Plangintza eta Koordinazio Zerbitzura helaraztea, eta alderantziz, hautaketa-prozesu horiek hobetzeko.

Ondorioz, 2025. urtean jarraituko da auditoretza informatikoko tresnen erabilera bultzatzen, aurretik edo egiaztapen-prozesuetan lortutako informazioa aztertu eta kudeatzeko, tresna horiek zergadunen anomalia fiskalak eraginkortasun handiagoz detektatzea ahalbidetzen dutelako.

Halaber, egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egingo dira jarduera ekonomikoak egiten diren bulegoetan, negozio-lokaletan eta gainerako establezimendu eta tokietan. Jarduketak horiek, funtsean, auditoretza informatikoko kontrolen bidez egingo dira, eta, era berean, aurreko urteetan bezala, zerga-administrazioaren erabakiak betearazteko baimen judizialaren eskaerak izapidetzea bultzatuko da, iruzur fiskalaren zantzu nabarmenak dauden kasuetan egoitzan sartu eta miaketa egiteko. Baimen horien bidez, hain zuzen ere, bermatu nahi da zergetarako garrantzitsuak diren baina Konstituzioak babestutako lekuetan dauden frogak lortzea, horrelako tokietan sartu eta miatzeko baimen judiziala behar delako.

Erregularizazio-jarduketan ondorioz Ogasun Publikoaren aurkako delituak egin izanaren zantzuak antzematen badira, Bizkaiko Foru Ogasunak txostenak helaraziko dizkio Ministerio Fiskalari, hark, egoki iritziz gero, salaketa aurkez dezan. Era berean, zerga-bilketako organoez iruzurrezko jokabideak ikertuko dituzte, baldin eta, tributu-zorrrak ordaintzea saihesteko, ondasunak edo eskubideak ezkutatzea helburu badute. Ikerketa horietan hauteman ahal izango da, gainera, ea arlo penalean pertsegitzeko modukoak diren eta, era berean, berrikuspen judiziala behar duten jokabiderik dagoen.

Aurretik aipatutako premisetatik abiatuta, jarraian, Bizkaiko Foru Ogasunak 2025. urtean informazioa lortzeko eta erregularizatzeko egingo dituen jarduketan xehetasun gehiago azalduko ditugu.

1. Informazioaren kalitatea hobetzea

Azken urteotan, Bizkaiko Foru Ogasunaren estrategia zerga-betebeharrak betetzen dituzten pertsonen egoera indartzera bideratu da, betebeharrak horiek betetzen ez dituztenen aurrean; izan ere, bigarren horiek, beren jokabidearekin, Ogasun Publikoaren interesei kalte egiteaz gain, lehia desleialaren faktorea ere gehitzen diote Bizkaiko ekonomiari.

Aipatu helburua lortzeko, Bizkaiko Foru Ogasunak garrantzi ekonomikoa duten informazio-kopuru oso handiak jasotzen ditu, batez ere jarduera ekonomikoak egiten dituzten



zergadunek aurkezten dituzten informazio-aitorpen orokorren bidez. Aitorpen horietan, beste pertsona batzuei buruz ezagutzen dituzten zerga arloko datuak ematen dituzte, beraiekin harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioak dituztelako.

Zergadunek emandako informazioa jasotzea ezinbestekoa bada ere zerga-egoeraren azterketa egiteko eta egon daitezkeen irregulartasun fiskalak detektatzeko, emandako datuak kalitatezkoak izatea da gakoa. Horregatik, administrazioak informazio okerra murrizteko ahaleginak egin behar ditu, zergadunek betetzen dituzten eremuetan murrizketak aplikatuta. Horrela, arindu egingo dugu emandako datuak berrikusteko beharra, eta errazago beteko ditugu.

Era berean, betebeharrak errazago betetzeko eta zergadunak emandako informazioaren kalitatea hobetzeko helburuarekin lotuta, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioaren zirriborroa prestatzen ari da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko web-aplikazio berria inplementatuko da Bizkaiko Foru Ogasuna garapen berrietan erabiltzen ari den informazioa erregistratzeko irizpideen arabera, hala nola PFEZ eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio berrietan. Bereziki, sozietateen jarduera ekonomikoen identifikazioari, lan-plan-tillaren datuei, bazkideen identifikazioari eta sozietateek beste sozietate batzuetan dituzten partaidetzei dagokienez. Hau da, Ogasunaren datu-baseetan informazio okerra edo inkoherentea sartzea eragotziko duten zerga-aitorpenak egiteko iragazki eta kontrol informatikoak ezarriko dira.

Gainera, informazio-aitorpen orokorreari dagokienez, funtsezkoa da informazioa zergadun bakoitzari behar bezala esleitzea, akatsak minimizatuta, eta jakinarazten diren eta zergetarako garrantzitsuak diren eragiketen titularren identifikaziorik ezak saihestuta.

Finantza-erakundeek egindako informazio-aitorpenei dagokienez, eta, zehazki, 170 ereduari dagokionez (hau da, kreditu- edo zordunketa-txartelen bidez kobrantzak kudeatzeko sistemari loturiko jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonak egindako eragiketen urteko aitortpena), akats-zantzuak antzematen direnean, saltokien terminalen titular gisa identifikatutako pertsonak eta erakundeak jarduera ekonomikoak egiten dituztenak direla egiaztatzeko jarduketak egiten jarraituko da.

Era berean, Bizkaiko Foru Ogasunaren datu-biltegian (edo «data warehouse» delakoan) dagoen informazioaren kalitatea hobetzera eta iturriak zabaltzera bideratutako zereginekin jarraituko da, plataforma horri buruz egiten diren kontsulten emaitzak ahalik eta zehatzenak eta fidagarrienak izan daitezen.

Bereziki, eta duten garrantziagatik, jarduera ekonomikoen etekinak adierazten dituzten PFEZren aitortpenak berrikusiko dira, aitortutako jardueren epigrafeak titularren zentsu-egoerarekin bat datozela ziurtatzeko.

Azkenik, izaera orokorreko informazio-aitorpenetan nahigabeko errakuntzak antze-man eta arazteko jarduketak egingo dira. Errakuntzok eragiketa batzuen zenbatekoari eragiten diote bereziki, eta agerian geratzen dira eragiketa horiek zergadunek beren aitortpenetan emandako informazioarekin alderatzean.

2. Datu-bolumen handiak prozesatzeko eta datu-zientziako teknika berriak aplikatzeko plataforma teknologikoa garatuko da

Zerga-arloko auditoretza informatikoa jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoen sistema informatikoak egiaztatzerako bideratutako jarduera profesionala da, Bizkaiko Foru Ogasuneko langileek sistema informatikoan erregistratutako edo idatzitako eragiketa ekonomikoen osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarritua osatzeko beharrezko ebidentziak lortzeko. Sistema informatiko horietatik eratorzen dira kontabilitateko egoera-orriak eta zerga-aitortpenak, era guztietako prozesu eta kontrolak egitearen bidez, tresna informatiko egokien laguntzaz eta Europar Batasunean gomendatutako estandarren eta lan-metodologiaren arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak laguntza eman die bere prozedurei, zerga-kontrolerako berriazko eta propioak diren konponbide informatikoz hornitutako auditoretza informatikorako tresna bat erabilita. Tresna hori Aldundi honetako



informazio korporatiboko eta administrazio elektronikoko sistemekin osatzen da. Tresna hori garatuz joan da, zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke eta jarraipena egiteko jarduketak egiten dituzten langileen beharretara egokitzeko.

Horrela, garatutako auditoretza informatikorako tresna urteetan zehar zerga-kontrolaren ziklo osoa estaltzeko plataforma teknologiko bihurtu da. Zikloaren hasieran, irizpide objektiboen arabera arrisku fiskal handieneko zergadunak hautatzen dira; gero, egiaztapen-prozedurak gauzatzen dira, eta, bukatzeko, zerga-kontrolako jarduketetan lortutako emaitzak —bai zergadunari dagozkionak, bai berarekin lotutako pertsonen dagozkienak— berriro sistemara sartzen dira, ezagutza-eredu globala hobetze aldera.

Orientabide horren arabera, 2025. urtean honako jarduketa hauek egingo dira:

— Erabiltzaileen prestakuntza trinkoa tresnaren zenbait modulutan: arrisku-aztarna duten zergadunak hautatzea, auditoretza informatikoko espedienteak garatzea eta zergadunen harremanen arteko analisi grafikoa.

— Tresnan datu-iturri berriak sartzea eta, bereziki, nazioarteko informazio-truke berrien informazioa.

— BATUZ sistemaren kontrol- eta betetze-plana diseinatu eta sortzea, sistemaren behin betiko ezarpen-egutegia aintzat hartuta. Egutegia abenduaren 22ko 8/2023 Foru Arauaren bidez onetsi da.

Zehazki, tresnak BATUZ eta «TicketBai!»-ren betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko panel bat ematen du, sistema behin betiko ezartzeko egutegiaren arabera, arrisku fiskal handiagoko duten eta baldintzak betetzen ez dituzten zergadunen aurrean garaiz erantzuteko.

— Alerta goiztiarren sistema bat garatzea, behin eta berriz errepikatzen dena, arrisku fiskaleko egoerak agerian jartzeko eta zergen aplikazio-organoei erantzun azkarrak emateko.

— Egiaztapen-prozeduren euskarri den tresnari dagokionez, egungo konponbidearen bertsio «arina» sortzea proposatu da, funtzionalitatea beste modu batera erabiltzeko beharri erantzuteko, eta laguntza bidezko egiaztapenean jarri da arreta, egiaztapen librearen gainetik. Hauek lirateke bertsio horren helburu nagusiak:

1. Zergadunen kopuru handia egiaztatzea erraztea, zehaztasunez egiaztatzearen gainetik.
2. Tresnaren erabilera esperientzia gutxiago duten erabiltzaileengana hurbiltzea eta erabilgarritasuna sinplifikatzea.
3. Analisi homogeneoak masiboki egiteak dakartzan abantailez baliatzea.

Hala, interfaze edo sarrerako alternatiba bat garatzea proposatu da, egiaztapen-espedienteekin elkarreragiteko. Horretarako, mahaigaineko bertsioaren funtzionalitate osoaren azpimultzo bat erabiliko da, eta erabiltzaileak esperientzia berri bat izango du.

— Egiaztapen-proba espezifikoaren planak garatzea, zergadunen arteko interes ekonomikoko erlazioak adieraziko dituzten grafikoak prozesatzeko algoritmoak erabiltzea, bereziki.

Halaber, zergen aplikazio-eremu guztietan (hau da, kudeaketa, ikuskapena eta zerga-bilketa) BATUZ sistemaren barruko pertsonak eta erakundeak EEELn egingako oharren informazioa sartzeko eta automatizatzeke jarduketekin jarraituko da. Hala, alertak, txostenak eta berariazko proba-planak garatuko dira.

— Auditoretza informatikoko tresnak ematen dituen txostenei dagokienez, handitu egin dira txostenetako datuak; izan ere, ondare-analisen kasuan, nazioarteko informazio-trukeetatik datorren informazioa sartu da. Gainera, tresnak zerga-betebeharrak betetzeari buruzko hainbat txosten eskaintzen ditu, eta, zehazki, PFE-Zari, Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko txostenak egin dira.

— Azkenik, nodo eta harremanen bidez pertsona fisiko edo juridikoen arteko loturak irudikatzen dituen tresnaren garapenarekin jarraitzen da, ikuskatutako pertsona



edo erakundearen testuingurua eta bere eragiketak hobeto ulertzen lagunduko duen informazioa aberasteko.

3. Ekonomia digitala eta informazio-iturri irekiak Interneten

Gaur egun, osorik edo zati batean kanal digitalen bidez burutzen diren jarduerak, marketin digitala barne, gero eta garrantzi eta pisu handiagoa dute ekonomian. Ekonomiaren digitalizazioak barne hartzen ditu bai merkataritza elektronikoa —hau da, produktu fisikoak edo zerbitzuak sarearen bidez berariazko truke-plataformen bidez saltzea—, bai ordainketa-zerbitzuak edo -plataformak, aplikazioak eta produktu digitalak deskargatzeko zerbitzuak, online publizitatea, parte hartzeko sare-plataformak («sare sozialak») edo hodeiko programazioa («cloud computing» izenez ezagutzen dena), beste negozio eredu batzuen artean.

Kanal digitalen ezarpen gero eta handiagora egokitzeko, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren (aurrerantzean, DAC 7) helburu nagusia da, besteak beste, administrazio-lankidetzara esparru berrietara hedatzea, ekonomiaren digitalizazioak dakartzan erronkei heltzeko eta zerga-administrazioei zergak modu hobea eta eraginkorragoan biltzen laguntzeko. Horren ildotik, betebeharrak ezartzen da plataforma digitalen operadorei dagokienez.

Era berean, kontuan hartu behar da Espainiak plataforma digitalen bidez lortutako diru-sarrereri buruzko informazioa automatikoki trukatzeari buruzko Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Multilateral sinatu duela Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Antolakundearen (aurrerantzean, ELGA) esparruan, baita helburu bera duten nazioarteko beste akordio batzuk ere. Ildo horretan, ELGAREN barruan, plataformetako operadoreek elkarlaneko ekonomiaren eta noizbehinkako eta enkarguzko lan-ekonomiaren esparruko saltzaileei buruzko informazioa jakinarazteko arau eredu batzuk onartu dira.

Nazioarteko bi arauak Bizkaiko Lurralde Historikoaren ordenamendura azaroaren 22ko 8/2023 Foru Arauaren bidez ekartzen dira. Foru-arau horrek hogeita zortzigarren xedapen gehigarria sartzen du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean. Xedapen horrek elkarren arteko laguntzaren eremuan betebeharrak duten plataforma-operadoreen informazioari, arreta egokiari eta erregistroari buruzko oinarritzko jarraibideak ezartzen ditu.

Ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunak 2025. urtean operadore horien informazio-betebeharrak ezartzeko eta Bizkaiko zergadunen kasuan datuak trukatu eta tratatzeko jarduketak gauzatzeko dituzte.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarri horren erregelamendu bidezko garapenari otsailaren 29ko 21/2024 Foru Dekretuaren bidez heltzen zaio. Foru-dekretu horrek behar adinako arretari buruzko arauak eta prozedurak garatzen ditu plataformako operadoreek jakinarazitako informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebeharrak formalak arautzen dituen Erregelamendua aldatzen du, plataforma-operadoreen erregistro-betebeharrak dagokienez. 10. artikulua gehitzen da, informazioa komunikatzera behartuta dauden beste plataforma-operadore batzuen erregistroari buruzkoa, eta haren edukia arautzen du, baita erregistro horretan alta, aldaketa eta baja emateko adierazpena ere.

Plataformetako operadoreek zenbait jardueraren berri emateko duten betebeharrak dagokienez, aipatu foru-dekretuaren 9. artikuluan zehaztutako apartatuak aldatu egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak arautzen dituen erregelamenduari 65. artikulua, betebeharrak hori DAC 7n nahiz ELGAREN arau tipoei konfiguratu dagoen baldintzetara egokitzeko.

Azaldutakoaren ondorioz, 040 ereduaren onetsi da. Horren bidez, informazioa emateko behartuta dauden beste plataforma-operadoreen erregistroan alta, aldaketa eta baja emateko zentsu-aitorpena egiten da.

Halaber, arestian aipatutako informazio-aitorpen berria egitea gaitzeko behar den aitorpen-eredua ere onetsi da (238 eredu: «Plataformetako operadoreek informazioa jakinarazteko informazio-aitorpena»), eman beharreko informazioa normalizatzeko erregistro-diseinuekin batera.



Azaldutakoa kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Ogasunaren 2025eko ekintzetako bat da 238 ereduaren informazio-aitorpenaren bidez lortutako informazioa administrazioan dauden gainerako datuekin alderatzea, iruzur-arriskua duten pertsonak eta erakundeak hautemateko eta, hala badagokio, dagozkien jarduketak egiteko.

Ildo beretik, azken urteotan merkataritza elektronikoak izan duen hazkunde esponenzialak mugaz gaindiko erosketak egitea orokortu du. Testuinguru horretan, merkataritza elektronikoak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen dituzten iruzurrezko enpresak daudela ikusi da; zerga-betebeharrak saihesten dituzte merkataritza-abantaila desleialak lortzeko. Izan ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren xedean zergak ordaintzeko printzipioa aplikatzekoa denean, eta hartzailea azken kontsumitzailea denean eta ez dagoenean kontabilitate-betebeharren mende, kontsumoko Estatu kideek tresna egoiak behar dituzte ordainketa horiek detektatu ahal izateko. Izan ere, ordainketa horiek onuraduna aitortu gabeko jarduera ekonomiko bat egiten ari den seinale izan daitezke.

Horregatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 166. quater artikulua ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak behartzen ditu, baldin eta haien jatorrizko edo harrerako estatu kidea Espainiako Erresuma bada, egindako mugaz gaindiko ordainketen erregistro behar bezain xehatuak izatera eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailera igortzera. Era berean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 81 bis artikuluan ezartzen duenez, jatorrizko edo harrerako estatu kidea Espainiako Erresuma duten ordainketa-zerbitzuen hornitzaileek aitortpen bat aurkeztu behar dute, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauak 166. quater artikuluan erregistroei buruz ezartzen duenarekin bat eginda. Informazio-aitorpen berri hori egin ahal izateko, martxoaren 19ko 118/2024 Foru Aginduaren bidez, 379 eredu onetsi da, mugaz gaindiko ordainketei buruzko informazio-aitorpenarena, baita hura bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedura ere.

Azkenik, zerga-administrazioak ekonomiaren digitalizazio-prozesuaren ondoriozko erronkei aurre egin behar die. Prozesu horretan, kriptoaikiboen edo txanpon birtualen erabilera handitzen da, transakzioak zuzenean hitzartzen dira, bitartekaririk gabe, negozio-eredu berriak sortzen dira, eta, gainera, esku hartzen duten pertsonen lokalizazio materialak eta haien identifikazio errealak garrantzia galtzen dute. Hori dela eta, aukera berriak sortzen dira zergak ezkutatzeko eta iruzur egiteko.

Horren ondorioz, zerga-administrazioak testuinguru berri horretara egokitu behar du, bereziki informazio-aitorpen berriak onartuta, hala nola atzerrian kokatutako moneta birtualei buruzko informazio-aitorpena (721 eredu), moneta birtualetako saldoei buruzko informazio-aitorpena (172 eredu) eta moneta birtualetan egindako eragiketei buruzko informazio-aitorpena (173 eredu). Bizkaiko Foru Ogasunak jarduketak egin beharko ditu zergapekoek aitortpen berri horiek behar bezala aurkeztu dituztela egiaztatzeko.

Egokitze prozesu horretan, Bizkaiko Foru Ogasuna Interneteko kanal irekietan dauden enpresen informazio ekonomikoa ezagutzeko proiektu batean ari da lanean, sare sozialetan eta ondasun eta zerbitzuen bitartekaritza-plataformetan argitaratzen den informazioa jaso eta aztertze asmoz.

Proiektu honen helburua da Bizkaian diharduten eta Interneten presentzia nabarmena duten negozioen irudi ekonomiko ahalik eta osatuena eraikitzea, hala nola, turismo-erabilerarako edo aldi baterako higiezinen errentamenduak, edo ospakizun, hitzaldi eta ekitaldien antolaketa, besteak beste. Lortutako informazioan oinarrituta, zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatuko da, azterketa-tresna baten bidez. 2024an ezarri zen tresna hori, eta 2025ean hobetzen jarraituko dugu, hautematen diren beharren arabera.

2025erako, digitalizazioak arlo guztietan izan duen gorakada oinarri hartuta, sare sozialetako profilak, merkataritza elektronikoak eta kriptoaikiboekin egindako eragiketak sakontzea aurreikusten da, Bizkaian zerga-betebeharrak betetzen ari ez diren zergadunak identifikatzeko.



4. Zerga-ondorioak dituen informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak baliatuko dira gure zergapekoek atzerrian dauzkaten ondasunak eta eskubideak detektatzeko

Nazioartean, zergadunen mugikortasuna eta mugaz haraindiko transakzioak areagotu direnez, zerga-administrazioek lankidetza handitu dute, zerga-betebeharrak betetzen direla bermatzeko eta iruzur fiskala murrizteko. Horregatik, Europar Batasunak eta ELGAK interes komuna dute estatu kideen artean informazio ekonomikoaren gardentasuna handitzeko, eta hori agerian gelditu da garrantzi handiko informazioa automatikoki trukatzeko zenbait tresna sortu eta garatu direlako.

Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzkoak, hainbat aldeketa izan ditu azken urteotan, Europar Batasuneko zerga-gardentasunaren arloko ekimen berriei lekua emateko. Aldaketa horiek zabaldu egin dute informazio-truke automatikoaren aplikazio-eremua, finantza-kontuei, mugaz haraindiko ondorioak dituzten zergak ordaintzeko aurretiazko akordioei, herrialdekako txostenei eta mugaz haraindiko zergen ordainketa-mekanismoei dagokienez. Gaur egun, estatu kideetako zerga-agintariek lankidetza-tresna gehiago dituzte iruzurrak, zerga-ihesak eta zerga-saihesteak hautemateko eta horiei aurre egiteko.

Europar Batasuneko ekimen horiek Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) garatutakoekin batera eta modu osagarrian hartu dira.

Horrela, finantza-informazioaren truke automatikoari dagokionez, alde batetik, Espainiako Erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko akordioa aipatu behar dugu. Akordio hori nazioarteko zerga-betetzea hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act —FATCA— inplementatzeko egin zen, eta Madrilen sinatu zen 2013ko maiatzaren 14an; eta, bestetik, 2014ko urriaren 29an Berlinen sinatu zen Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Multilateralra, finantza-kontuen informazio-truke automatikoari buruzkoa.

Zehazki, 2017an, 49 jurisdikzio egin zuten finantza-informazioaren lehen truke automatikoa, eta, orduetik, herrialde eta jurisdikzio gehiago sartuz joan dira. Gaur egun, 100 jurisdikzio baino gehiagok hartu dute informazioa sistema informatiko automatiko eta aldizkako horren arabera trukatzeko konpromisoa. Zehazki, Bizkaiak 90 jurisdikziotako informazioa jaso du, Bizkaian bizi diren eta atzerrian banku-kontuak irekita dituzten zergadunei buruzkoa.

Irismena aintzat hartuta, nabarmentzekoa da, halaber, lan-etekinei, administratzaileen eta kontseilarien ordainsariei, pentsioei, ondasun higiezin jabetzari eta higiezin etekinei buruzko informazio-truke automatikoa.

Aurreko urteetan bezala, 2025. urtean Bizkaiko Foru Ogasunak jasotako datuen egiazotasuna kontrastatuko du, egon daitezkeen akatsak agerian jartzeko, eta informazioaren kalitatea hobetzeko. Hala, zerga-administrazio honetako organoek informazio-trukea baliatuko dute datuak kontrastatzeko zerga-betebehardunek atzerriko ondasun eta eskubideen aitortpenaren 720 informazio-ereduan adierazitako zenbatekoarekin. Horrela, bien artean adostasunik ez badago, zerga-iruzurra egin izanaren zantzuak dituzten pertsona eta erakunde zergadunei dagokienez, informazioa lortzeko eta, hala badagokio, erregularizatzeko jarduketak egitea proposatuko da.

5. Nazioarteko fiskalitatearen esparruan diharduten enpresa-taldeak aztertuko dira

Nazioarteko iruzurraren prebentzioa Bizkaiko Foru Ogasunaren kezka nagusietako bat da; izan ere, hori garbi adierazi da Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren azken ebazpenetan, zeintzuen bidez aditzera eman baitziren iruzurraren aurkako plana funtsatzen duten irizpide orokorrak.

Jarduera ekonomikoa mundu mailan nazioartekotu eta integratu izanak (ekonomiaren digitalizazioaren garapena dela eta), nazioarteko lotutako eragiketek gaur egungo ekonomian funtsezko garrantzia izatea ekarri du. Hori dela eta, eta eragiketa mota horrek berez dakarren arrisku fiskalarekin batera, 2025eko ikuskapen-jarduketan artean lehentasunezko eremua dira berriro ere.



Zerga-itunekin lotutako neurriak aplikatzeko Hitzarmen Multilateral indarrean sar-tzeak aukera eman du nazioarteko hitzarmenak aldatzea eskatzen duten BEPS proiektu-ko lanetatik eratorritako neurri guztiak pixkanaka ezartzeko.

Egiatzatze-jarduketek zainduko dute arau horiek benetan aplikatzen direla, baldin eta horien existentzia soila ez bada nahikoa izan jokabide baztergarriak ezabatzeko.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Ogasunak Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentzia Prezioen Unitatea sortu zuen 2017an, nazioarteko fiskalitatearen esparruan espezializa-tutako unitate gisa. Unitate horren eginkizun garrantzitsuenak talde multinazionaltako entitateen artean dauden lotutako eragiketak eta transferentzia-prezioak aztertzea da.

Eragiketa horiek ahalik eta baliabide espezializatuenekin aztertzeo, Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentzia Prezioen Unitatera atxikitako aktuarioek gai horri buruzko prestakuntza espezifikoa jasotzen ari dira. Gainera, beren lana egiteko tresna egokiak dituzte, bereziki nazioarteko finantza-informaziooko datu-baseetan sartzea ahalbidetzen dutenak. Ildo horretan, finantza-softwareko tresna berri bat kontratatu da, lotutako per-sonen edo entitateen artean egindako zenbait finantza-eragiketaren konparagarritasuna aztertu ahal izateko.

Aurreko urteetan bezala, 2025ean, unitate horrek egingo dituen informazioa lortze-ko eta, hala badagokio, erregularizazio-jarduketan helburua izango dagezurrezko zerga-egiturak sortuta zergak ordaintzea saihesteko finantza-ingeniaritzan erabiltzen den edozein mekanismo azaleratzea.

Bereziki, Bizkaian zergak ordaindu behar dituzten eta etekinak murrizten dituzten Biz-kaitik kanpoko egiturek eragindako zerga-oinarrien murrizketa edo eragiketen itxurazko lokalizazioa detektatzeko jarduketak egiten jarraituko da.

Arreta berezia jarriko da zergadun askok erabiltzeko kopiatzen dituzten edo kopiatu edo estandarizatu dezaketen eta arrisku fiskal handia izan dezaketen egitura eta jokabi-deak identifikatzean, hala nola, asimetria hibridoekin, nazioarteko gardentasun fiskala-rekin, finantza-gastuen kengarritasunarekin edo hitzarmen fiskalen abusuarekin lotutako arloei dagokienez.

Hain zuzen, arreta berezia jartzen jarraituko da Bizkaian bizi diren zergadunek aplika ditzaten zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenak eta Europar Batasunaren araudia. Izan ere, ekidin nahi dira ez-zergapetze bikoitzaren eta zerga-saihestearen kasuak, zergapetze bikoitzeko hitzarmenen klausula batzuen edo Europar Batasunaren arauen eta arau nazional jakin batzuen arteko elkarrekintzaren ondorioz gerta daitezkeenak. Ildo horretan, Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentzia Prezioen Unitateak jarraituko du az-tertzen ea Bizkaiko zergadunek behar bezala aplikatzen dituzten gure ordenamendu ju-ridikoan ezarritako mekanismoak atzerrian errentak lortzeagatik nazioarteko zergapetze bikoitza ezabatzeko.

Aurreko urteetan bezala, Nazioarteko Fiskalitate eta Transferentzia Prezioen Unita-teak jarduketak egingo ditu lotutako pertsona eta entitateen artean egindako eragiketen zerga-ordainketa zuzena aztertzeo eta talde multinazionaltako entitateen artean dau- den transferentzia prezioak zehazteko. Horretarako, arreta berezia eskainiko dio, hala badagokio, «herrialdez herrialdeko txostenaren» bidez emandako informazioari. Ildo horretan, gogora dezagun Espainiako Estatuak 2016ko urtarrilaren 27an sinatu zuela, beste 30 estaturekin batera, Agintaritzaren Eskudunen arteko Akordio Multilateral «herrial- dez herrialdeko txostena» trukatzeko. Akordio hori ELGaren BEPS Proiektuan sartuta dago, eta merkataritza-talde transnazionalen transferentzia-prezioen politikan arriskuak ebaluatzea ahalbidetzen duen tresna da. Era berean, Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentarauak 2011/16/EB Zuzentaruak aldatu zuen, eta, ondorioz, talde multinazional handiek aurkeztu behar duten informazioa automatikoki trukatzeko betebeharra berdin bete beharko da «herrialdez herrialdeko txostenen» kasuan ere. Tru-ke hori aurreko atalean aipatu dugu.

Zehazki, hainbat aktiboren (ukiezinena, bereziki) talde barruko transmisioak edo lagapenak behar bezala baloratzeko jarduketak egingo dira, baita zerga-oinarria na- barmen murriztu dezaketen partidak kentzekoak ere, hala nola ukiezinaren lagapenetik



eratorritako kanon-ordainketak edo talde barruko beste zerbitzu mota batzuegatik eratorritako ordainketak. Jarduketa horietan, transferentzia-prezioak baloratzeko metodoak behar bezala aukeratu direla eta horiek aplikatzean erabilitako parametroak egokiak direla egiaztatuko da.

Era berean, unitateak jarraituko du Bizkaian diharduten talde multinazionalen buruzko informazioa biltzen, taldearen zerbitzu komun jakin batzuk direla eta: kudeaketan laguntzeko zerbitzuak, ukiezin lagapena, finantza-zerbitzuak, merkataritza-zerbitzuak edo bestelako zerbitzu orokorrak. Izan ere, baliteke zerbitzuok ez fakturatzeko edo zuzen ez fakturatzeko eta, ondorioz, gure lurraldean aitortu behar diren diru-sarrerak nabarmen gutxitzea. Bereziki, Bizkaiko erakunde nagusiek atzerriko filialetan ematen dizkieten zerbitzu korporatiboetako buruzko informazioa lortzeko jarduketak egingo dira. Era berean, informazio hori zeharkako zergen arloko ordainketa egokia aztertzea erabiliko da.

Halaber, Bizkaiko Foru Ogasunak aurrerantzean ere arreta jarriko du Bizkaiko zergadunengan, baldin eta zergadunok lotura badute Zergei buruzko Foru Arau Orokorren hogeita laugarren xedapen gehigarriaren arabera jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde eta lurraldeetako pertsona edo entitate egoiliarrekin. Jarduketa horiek egikaritzeko, mundu-mailako enpresa-informazioaren datu-baseak, gorago aipatu ditugun nazioarteko truke automatikoen bidez jasotako informazioa eta Sozietateen gaineko Zergaren aitortzen informazioa erabiliko dira.

6. Bizkaian errentak lortzen dituzten zergadun ez-egoiliarren ordainketa egiaztatzea

2025ean, Bizkaiko Foru Ogasunak Espainiako lurraldeko ez-egoiliarrek lortutako errenten zerga-ordainketa egokia egiaztatzeko jarduketak egingo ditu.

Jarduketa horiek establezimendu iraunkor baten bitartez Bizkaian egiten diren jarduegatik lortutako errenten zerga-ordainketa egokia aztertuko dute.

Era berean, jarduketa horien xedea izango da egiaztatzea Bizkaiko zergadunek Espainiako lurraldean egoiliar ez diren eta establezimendu iraunkorrik ez duten zergadunei ordaindutako beste errenta batzuen zerga-ordainketaren erregulartasuna, bereziki kanonen, royaltyen eta dibidenduen ordainketena.

7. Enpresa handiak, talde fiskalak eta entitate-taldeak

Aurreko urteetan bezala, 2025. urtean, enpresa handiak ikuskatuko dira, zerga-ordainketaren alderdi batzuk zuzen aitortzen dituzten egiaztatzeko, besteak beste, ea zuzen egiaztatu eta kontsolidatzen dituzten kenkariak eta beste pizgarri fiskal batzuk.

Bestalde, azken urteotan etengabe hazi da zergak Sozietateen gaineko Zergaren baitako zerga-kontsolidazioaren araubide berezia edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baitako entitate-taldeen araubide berezia aplikatuz ordaintzea erabaki duten enpresa-taldeen kopurua. Beraz, Bizkaiko Foru Ogasunak gero eta baliabide gehiago erabili behar ditu erregimen horiek behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko, arrisku fiskalaren zantzuak dituzten taldeen ezaugarriak eta tamaina kontuan hartuta.

Aurreko urteetan bezala, jarduketa horiek honako hauek egiaztatzerako bideratuko dira: talde fiskalen osaera egokia, talde barruko eragiketen emaitzen ezabaketa eta txertaketan aitortpen egokia, eta, bereziki, entitateek taldean sartu aurretik sortutako kreditu fiskalak taldean aplikatu diren, talde bakoitzaren zerga-ordainketaren beste elementu berezi batzuk egiaztatzeari kalterik egin gabe.

Era berean, zerga-taldeak kreditu fiskalak sortzen dituztenean, jakin behar da taldeko zein kidek lagundu duten kreditu horiek sortzen eta zer proportziotan egin duten, taldearen osaera aldatuz gero eta kreditu fiskal horiek taldeak kontsolidazio-fiskalaren araubidean aplikatu ez baditu, erakunde horiek dagokien proportzioan onartuko baitute banako zergapetze-araubidean kreditu horiek aplikatzeko eskubidea. Horregatik, jarduketak egingo dira kasu horietan taldeak berak edo sortzen lagundu duten erakundeek kreditu fiskalak bidegabe konpentsatzeko edo aplikatzeko ustezkorik ez dagoela egiaztatze aldera.

**8. Merkataritza-taldeetako erakundeen arteko eragiketei buruzko dokumentazio-eskakizunak bete direla egiaztatzea**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua xedatzen duenaren arabera, zerga-administrazioak egiaztatu ahalko du lotura duten pertsonen edo erakundeen artean egindako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera balioetsi direla eta, bidezkoa bada, dagozkion balorazio-zuzenketak egingo ditu.

Bestalde, foru-arau beraren 43. artikuluari jarraikiz, lotura duten pertsonen edo erakundeen arteko eragiketen merkatuko balioa zehazteko, zergadunek, zerga-administrazioak eskatuz gero, artikuluan eta arauz garatzeko garapen-arauetan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Hala, zerga-administrazioaren esku egongo da zergaren autolikidazioa aurkezteko borondatezko epea amaitzen denetik.

Dokumentazio-eskakizunak betetzeak garrantzi berezia du Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen erakunde-taldeen kasuan eta, bereziki, lotura duten eragiketak atzerriko erakundeen establezimendu iraunkorretan egiten direnean.

Horregatik, 2025. urtean, merkataritza-taldeei lotura duten eragiketen dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie. Helburua da edukia eta araudiarekiko egokitasuna aztertzea eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunean lotura duten eragiketak behar bezala zergapetzen direla egiaztatzea.

9. Lotutako pertsonen eta erakundeen arteko eragiketak eta, bereziki, pertsona fisikoen zerbitzu oso pertsonalak fakturatzeko bitarteko sozietateak erabili ote diren kontrolatzeko jarduketak

Esparru horretako ikuskapen-jarduketek diru-sarreraren aitortpenik eza agerikoa den egoerak izango dituzte ardatz, hala nola aitortu gabeko edo gutxietsitako zerbitzuen prestazioetatik edo jasanarazi gabeko aktibo ukiezinen lagapenetatik eratorritakoak.

Bestalde, pertsona fisikoek emandako zerbitzuen zerga-ordainketa bideratzeko tresna gisa sortutako pertsona juridikoak detektatzeko jarduketak egingo dira. Izan ere, pertsona fisikoen zerga-ordainketa modu irregularrean murriztu da, gaur egun PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasen artean dagoen aldearen ondorioz. Hala ere, beste irregulartasun batzuei ere erantzungo zaie, hala nola, bazkideen gastu pertsonalak jardueraren emaitzetan sartzeari edo sozietate-ondarearen barruan jarduera ekonomikoekin zerikusia ez duten ondasunak eta eskubideak sartzeari, hala nola, bazkideen erabilera partikularerako edo pertsonalerako bideratutako ondasunak eta eskubideak.

10. Barne-fiskalitatearen arloko jarduketak

Era berean, barne-fiskalitatearen arloan, Bizkaiko Foru Ogasunak zergadun batzuei buruzko informazio gehiago edo informazio hobea lortzeko jarduketak egingo ditu, baldin eta zergapeko horiek beren jarduera zerga-iruzurra gertatzeko arrisku handiko sektore ekonomikoetan edo negozio ereduetan egiten badute. Lortutako informaziotik abiatuta, arriskuaren analisia egingo da, baita kontrol integrala ere beharrezkotzat jotzen bada, dagozkion egiaztapen- eta erregularizazio-prozeduren bitartez.

Zehazki:

- a) Balio erantsi handiko zerbitzuak emateko jarduerak direla eta jarduketak egingo dira, eta, bereziki, azken kontsumitzaileei zuzenduta egoteagatik zerga-administrazioak uste duenean iruzurrezko jardueren zantzuak daudela.
- b) Berriazko informazio-errekerimenduak egingo dira, bereziki, finantza-erakundeek informazio-aitorpen orokorretan emandako informazioari dagokionez, ezkutuko ekonomian egindako transakzioak, aitortu gabeko errentak, fiskalki kengarriztat jotzen ez diren gastuak eta jarduera ekonomikoekin zerikusirik ez duten kontsumo pribatuak detektatzeko.

Era berean, zergadunek eta beren inguruneak txartelaren bidez egindako kobrantzak gurutzatzeko jarduketak egingo dira aitortutako datuekin alderatzeko. Helburua da gastuaren eta kontsumoaren arteko ondare-inkoherentziak agerian uztea eta aitortu gabeko jarduera ekonomikoak azaleratzea.



Era berean, informazioa lortzeko eta, hala badagokio, erregularizazio-jarduketak egingo dira ezkutuko ekonomia egoteko arrisku handia duten sektoreetan jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta erakundeei dagokienez, arreta berezia jarrita eskudiruaren erabilera intentsiboari edo banku-sistemen bidezko ordainketarik onartzen ez dutenei.

Halaber, finantza-erakundeek emandako informazioa aztertu ondoren, mota horretako eragiketen muga betetzen ez duten eskudiruzko ordainketak egon daitezkeela ikusten bada, egoera hori erregularizatu egingo da, Sozietateen gaineko Zergan eta PFEZn kengarriak ez diren gastutzat jotzeko.

- c) Atxikipenak eta konturako sarrerak egin eta ordaindu behar dituzten zergapekoak kontrolatzea, bereziki ordaintzen dituzten lan-errenten eta higiezinaren kapitalaren gainekoa. Horretarako informazio hau gurutzatuko da: egindako aitorten informatiboak; egindako diru-sarrerak; eta atxikipena edo konturako sarrera jasaten duten pertsona edo entitateei emandako ziurtagiriak.

Hain zuzen ere, jarduketak egingo dira, enpresek beren langileei ordaindu eta atxikipen zein kargarik gabeko dieta edo ordainsari gisa aitortutako kopuruen erregularatasuna egiaztatzeko.

- d) Jarduketak egiten jarraituko da egiaztatzeko ea fakturak egin eta emateko betebeharrak betetzen den, eta, aldi berean, ea jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek zentsu-aitorpenei buruzko betebeharrak betetzen dituzten. Horrez gain, aitortu ez diren jarduerak detektatzeko jarduketak egingo dira.

Bereziki, 2025ean, aurreko urteetan bezala, kontrol bereziak egingo dira egiaztatzeko enpresaburuek eta profesionalek behar bezala betetzen dituztela fakturak egiteko eta entregatzeko betebeharrak orokorrak, baldin eta BATUZ sistema behin betiko ezarri zeneko data oraindik bete ez bada.

Halaber, «TicketBai!» software bermatzailearekin fakturak eta egiaztagirak egiteko betebeharrak betetzen diren egiaztatuko da, baita sistema hori jada bete behar dutenez BATUZ sistema aplikatzearen ondoriozko EEELn kudeaketa ere.

Gainera, arrazoi teknikoak direla eta fakturak «TicketBai!» software bermatzailearekin igortzeko betebeharrak betetzetik salbuetsita dauden zergadunei dagokienez, egiaztatuko da behar bezala betetzen direla beren oharrak eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan erregistratzeko betebeharrari dagokionez salbuesteko erabakian ezarritako betekizunak.

- e) Bizkaiko udalek tokiko erabilera publikoko lurra salgaiekin, eraikuntza-materialekin, obra-hondakinekin, hesiekin, aldamiokekin edo etxe-aldaketak egiteko okupatzeari buruz emandako informazioan aipatzen diren zergadunek zergak behar bezala ordaintzen dituzten ikertuko da.
- f) Gastu pribatu ez-kengarriak detektatzeko jarduketak egiten jarraituko da, baldin eta gastu horiek deklaratu dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek beren etekin garbia behar ez bezala murrizten duten jarduera ekonomikoak egiten badituzte. Era berean, jarduketak egingo dira jarduera ekonomikoetan diharduten zergadunek ordezkaritza-gastuak eta opariak behar bezala kentzen dituzten egiaztatzen.
- g) Jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiapena dela eta, Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarrian murriztapenak egokiro aplikatu diren egiaztatzen jarduketak egiten jarraituko da.
- h) Eusko Jaurlaritzatik zerga-arloan garrantzia duen informazioa jaso duten enpresek zergak behar bezala ordaintzen dituztela egiaztatzen jarduketak egiten jarraituko da, Eusko Jaurlaritzaren eskumenean sektoreetako jarduera ekonomikoen kontrol- eta ikuskapen-eginkizunak beteta.

Zehazki, higiezinaren negozioei dagokien zerga-ordainketaren kontrol osoa egingo da. Horren barruan sartuko dira turismo-apartamentuen eskualdatze, alokairu, azpialokairu eta ustiapenetik eratorritakoak; eta Bizkaiko udalek etxebizitzetan



eta lokaletan emandako obra-lizentziei buruz emandako informazioan aipatzen diren zergadunen zerga-ordainketa egokia.

Sozietateen zerga-ordainketa zuzena egiaztatzeko jarduketak egiten jarraituko da, baldin eta haien aktibo nagusia jarduera ekonomiko bati lotuta ez dauden eta nagusiki errenta pasiboak lortzen dituzten ondasunek osatzen badute, eta entitate horietako bazkideena, izaera horren ondorioz eragiten dieten zerga guztietan. Zehazki, dibidenduak jasotzen dituzten pertsona fisikoen zerga-ordainketa egokia den aztertuko da, banaketa hori egin denean sozietateen zerga-araubidea zein den kontuan hartu gabe, eta sozietateek aurreko aldietan zergak ordaindu dituzten aztertuko da, Sozietateen gaineko Zergan ondare-sozietateetarako ezarritako xedapenei jarraikiz.

- j) Bizkaian lantokiak dituzten sozietateak egiaztatzeko jarduketak egiten jarraituko da, baldin eta langile-kopuru handia badute eta lurralde honetan Sozietateen gaineko Zergaren edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopenei aurkeztu ez badute.
- k) Enpresek egindako berregituratze-eragiketak aztertuko dira, zergak saihesteko egitura maltzurak detektatze aldera.
- l) Bestalde, Bizkaiko Foru Ogasunak ahaleginak egingo ditu informazioa emateko betebeharratik kanpo geratzen diren finantza-zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeen deszentralizazioa aztertzeko, erakunde horien bitartez jarduten duten zergadunak detektatzeko, horien erabilera saiheste- edo iruzur-bidea izan ez dadin.
- m) Mikroenpresa izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egingo dira, eta, baldintzak betetzen ez badira, behar ez bezala aplikatutako onurak erregularizatzeko jarduketak.
- n) Jarduten duten sektorearen edo garatzen duten negozio-ereduaren batez bestekoaren azpitik dauden errendimenduak aitortzen dituzten zergadunei egiaztatu egingo zaizkie.
- o) Egiaztatze-jarduketak egiten jarraituko da, eduki ekonomikorik gabeko fakturak daudela edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta zerga berezien esparruan askotan izan diren iruzur-sare antolatuetan parte hartzen delako zantzuak dauden kasuetan, betiere Europako Batzordeak jokabide horiei aurre egiteko emandako gomendioak kontuan hartuta.
- p) Azkenik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuan dauden zergadunak aztertzen jarraituko da, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako beren jarduera ekonomikoaren etekina zuzeneko zerbatespenaren araubidearen modalitate erraztuaren bidez zehazten dutenak, eta zerga-espezialitate horiek aplikatzea ahalbidetzen duten muga kuantitatiboak ez dituztela betetzen erakusten duten zantzuak dituztenak.

11. Aurreko urteetan egiaztapen-jarduketak egin zaizkien zergadunen jarraipena egingo da

Lehenago adierazi denez, zerga-iruzurraren aurkako borroka zeregin konplexua da eta ahalegin handiak eta etengabeak eskatzen ditu. Hori dela eta, aurreko urteetan abiarazitako lan-ildo berrien arrakastaren gakoetako bat da lan-ildo horiek denboran mantentzea, eragindako pertsona guztiengana iristen direla bermatzeko. Horrela, aurreko urteetan kontrolatutako zergadunen kasuan, beren zerga-betebeharrak betetzeko mailak hurrengo ekitaldietan ez duela beherantz egiten bermatuko da.

Hori dela eta, aurreko urteetan egiaztapen-jarduketak egin zitzaizkien zergapekoen jarraipena egiten jarraitzen da, ondoren ere betebeharrak fiskalak betetzen dituztela bermatzeko edo, hala ez bada, berehala erantzuna emateko, ordaindu gabeko zorrak eskatzeko eta, arau-haustek errepikatzen badira, zehapen handiagoak ezartzeko.



Horrela, Bizkaiko Foru Ogasun honek burututako jarduketan emaitza egiaztapena egiten den urtean eta hurrengo urteetan eraginkorra izatea lortu nahi da, bestela, iruzurra ez baita inoiz ere amaituko.

12. Arreta handia jarriko da zergen aitorpenik aurkeztu ez duten zergapekoengan, baldin eta zerga-itzulketak eskatu badituzte edo hainbat zergalditan edo aitorpenetan behin eta berriz konpentsatu beharreko zenbatekoak egiaztatu badituzte

Halaber, egoitza Bizkaira aldatzearen ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa lurralde honetan aurkeztu behar duten eta beste lurralde batzuetan sortutako konpentsazio-kuotak aplikatu dituzten sozietateek aitortutako zenbatekoak egiaztatuko dira.

13. Zerga-onurak egiaztatzen dituzten aitorpenak kontrolatzea, sortzen diren ekitaldian bertan aplikatu behar izan ala ez, edo aurreko aldietan egiaztatutako kengarriak edo bestelako zerga-pizgarriak bateratzeko betekizunak betetzeko epeak amaitzen direnean

14. Zerga berezien eta ingurumen-zergen arloko jarduketak

Bizkaiko Foru Ogasunaren helburuetako bat da —urtero iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko planetan islatu bezala— zerga berezien xede diren ondasunen fabrikazioari, banaketari eta merkaturatzeari dagozkien eragiketen zergak Bizkaian behar bezala ordaintzen direla ziurtatzea, bai zeharkako zergei dagokienez, bai jarduera horien garapenean inplikaturako pertsona eta erakunde guztien zuzeneko zergei dagokienez. Bereziki, ahalik eta lasterren antzeman eta saihestu nahi dira sektore horretan diharduten enpresen sareak, zergen ordainketa saihesteko sortu direnak.

Horregatik, fabrikazio-zerga bereziak kontrolatzeaz arduraturako Bizkaiko Foru Ogasuneko langileek sektore horretan jarduten duten pertsonen eta erakundeen ezarritako betebeharrak formalak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egingo dituzte, araubide horren mende dauden establezimenduetan produktuak eta lehengaiak sartu, fabrikatu, biltegitatu eta irteteko eragiketarak behar bezala erregistratzen direla kontrolatzeko.

Era berean, langile horiek honako hauek kontrolatuko dituzte: produktuak fabrikatzeko edo eraldatzeko eragiketarak behar bezala aitortzea; produktuak aitortutako helmuga eta prozesuetan modu eraginkorrean aplikatzen direla; eta izakinak kontabilizatzeko betebeharra betetzen dela, hala badagokio, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko kontabilitateko idazpenen hornidura elektronikoaren bitartez, SILICIE (Zerga Berezien Kontabilitate Liburuen Berehalako Hornidura) izeneko sistemaren bidez.

2025etik aurrera, SILICIEren 2.0 bertsioa aplikatuko da. Bertsio horrek, berrikuntza nagusi gisa, kontabilitate-ekitaldiaren figura ezartzen du, zeina urtero emango baita aldan eta establezimenduek aldi horretan egindako idazpen guztiak jasoko baititu; oraingo SILICIErako, aldiz, eragiketen aitorpena jarraian egin behar zen.

Aurreko ataletan aipatu dugun bezala, eta administrazioan espezializazioa sustatze aldera, Zerga Berezien Unitateak egiaztatuko du obligaziodunek Zerga Berezien eta Ingurumen-zergen eremu objektiboko produktuekin lotutako eragiketarak egiten dituztenean betebeharrak formalak eta zerga-betebeharrak betetzen dituztela. 2025ean, bereziki, honako jarduketarak hauek egingo dira:

- Hidrokarburoen gaineko zergari dagokionez, zerga horren xede diren ondasunen banatze-eragiketarak kontrolatzeko eta ikertzeko jarduerak bultzatuko dira, batez ere zerga salbuetsi beharreko kasuak eta karga-tasa murriztuak aplikatzeko kasuak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko; eta zerga hori, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga iruzurtzeko sortutako enpresak saihesteko eta lehenbailehen detektatzeko.
- Eta Bizkaiko kontsumitzaileak hornitzen dituzten gasa eta elektrizitatea merkaturatzen dituzten erakundeen dagokienez, dagozkion zerga bereziak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga behar bezala aitortu eta Bizkaiko Foru Ogasunean sartu direla egiaztatzeko jarduketarak egingo dira.



Ingurumen-zergei dagokienez:

- Zergadunek berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren araudi berria behar bezala aplikatzen dutela egiaztatzeko jarduketekin jarraituko da, maiatzaren 16ko 2/2023 Foru Dekretu Arauemailea aplikatuta (dekretu horrek berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko ekainaren 11ko 5/2014 Foru Araua aldatzen du).
- Hurrenez hurren, azaroaren 22ko 6/2023 eta azaroaren 22ko 7/2023 Foru Arauek xedatutako plastikozko ontzi ez-berrerabilgarriak eta hondakinak zabortegetan bota, erraustu edo koerraustearen gaineko zerga berrien autolikidazio zuzena ziurtatzeko jarduketak egingo dira.

15. Zergak eragiketa-bolumenaren arabera eta zerga-administrazio batean baino gehiagotan ordaintzen dituzten erakundeek aitortutako zerga-ordainketaren ehunekoak zuzen aplikatu direla egiaztatzea (foru-administrazioak zein lurralde erkidekoak izan)

Ildo horretan, egiaztatuko da ea zergadunek zuzen aplikatzen dituzten Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak; bereziki, begiratu da ea Arbitraje Batzordearen azken ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren azken epaietan ezarritako interpretazio-irizpideen arabera aplikatzen diren.

Halaber, ahalegina egingo da zerga-administrazio bati baino gehiagori eragiketa-bolumenaren arabera zergak ordaintzen dizkieten eta urteko erregularizazioa egiten ez duten sozietateak identifikatzeko.

16. Zerga-administrazioak duen informazioaren arabera, aitortutako inkohertzia nabarmenak dituzten zergapekoak kontrolatzea

Bereziki, arreta handia jarriko da zergadunek zerga-administrazioari aitortu gabeko ondasunak eta eskubideak daudela edo, aitortu arren, horiek edukitzea ez datorrela bat zergaldian egindako aitortutako aitortutako etekinekin.

Era berean, aitortutako diru-sarrerei eta egindako inbertsio eta gastuei dagokienez desadostasun handiak dituzten zergadunei buruzko berariazko jarduketak egiten jarraituko da, urtean egindako maileguen amortizazioak barne.

17. Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren eta beste zerga batzuetan iruzurra saihesteko asmoz, Europar Batasuneko barne-eremutik nahiz beste estatu batzuetatik datozen ibilgailuen eskualdaketak kontrolatzeko jarduketak egiten jarraituko da

Zehazki, Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren esparruan, zerga-oinarrien aitortpen zuzena kontrolatzeko jarduketak eta legez ezarritako salbuespenak eta zergapean ez dauden kasuak aplikatzen direla kontrolatzeko jarduketak egiten jarraituko da.

Jarduketa horietan guztietan, Bizkaiko Foru Ogasunaren zergak aplikatzeko esku-mena duten organoek ahaleginak egingo dituzte oreka egokia lortzeko iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko beren jarduketari eskatzen zaion eraginkortasunaren eta — datu pertsonalen babesari buruzko araudian ezarritako — datuen proportzionaltasun eta kalitate printzipioarekiko errespetuaren artean.

IV. KOBRANTZA-JARDUKETAK

Atal honetan, zerga-bilketako organoek egindako jarduketak zerrendatzen dira, zergapekoek ordain dezaten, bai borondatezko aldian, bai betearazpen-aldian. Zerga-bilketako fasean, zorra zehazten da zergadunek aurkeztutako autolikidazioaren bidez edo zerga-administrazioaren likidazioaren bidez, eta, hala, zor hori kobratzen da.

Erregularizazio-jarduketei dagokienez, iruzurra gertatu ondoren, hura kuantifikatzea eta zehapena ezartzea da helburua; gainera, iruzurgileak zerga-betebeharrak borondatez betetzea merezi duela konbentzitzeko ere balio dute. Ondorengo fase batean, kudeaketa- eta ikuskapen-organoen azaleratu duten zerga-zorra kobratzeko, zerga-bil-



ketako organoek zergapekoei, zordun nagusiei eta haiekin lotura duten erantzule solidario eta subsidiarioei buruzko informazio osoa eta egiazkoa izan behar dute. Hortaz, zerga-administrazioaren organoak lankidetzan estuan aritzea erabakigarria da beren helburuak betetzen direla bermatzeko.

Era berean, diru-bilketako eginkizunen eremuan, bulegoetan, negozio-lokaletan eta jarduera ekonomikoak egiten diren gainerako establezimendu edo tokietan aurrez aurreko jarduketak egitea bultzatuko da.

Fase horretan, betiere zordunei edo haiekin lotura duten beste batzuei dagokienez, batetik, zorra kobratzeko balio dezaketen ondasun edo eskubideak aurkitzea eta, bestetik, zorra ez ordaintzeko ondare-hustuketak eta beste iruzurrezko eragiketa batzuk azalaratzea da iruzurraren aurkako borrokaren helburua.

Eginkizun hori errazte aldera, Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-bilketako organoek eskura dituzte datuak aztertu eta tratatzeko tresnak, zerga-bilketa kudeatzeko informazio-iturri berriak pixkanaka automatizatzen. Tresna horiek, alde batetik, ordaintzea egin behar duten beste pertsona edo erakunde batzuk bilatzen lagunduko dute, eta, bestetik, kuantifikatutako zorrak ez ordaintzeko ezkutatu nahi diren ondareak bilatzen lagunduko dute.

Azken xedea honako hau da: zorra ordainarazteko beharrezkoak diren enbargoak egitea, ordaintzera behartuta dauden beste pertsona batzuk zehazteko jarduketak hasia (erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa eskatuta) eta delitu-zantzurik dagoen ikerketza.

Iruzurraren aurka egiten den borrokan, zerga-bilketako fasean, zorra ordainarazteaz gain, iruzur eginez ordaindu nahi ez dutenengan disuasio-efektua lortzeko eta iruzur egiteko gogoia kentzeko jarduketak egiten dira.

Ondorioz, Bizkaiko Foru Ogasunak, 2025. urtean zehar, honako jarduketa hauek egingo ditu, zerga-bilketako fasean zerga-zorra kobratzeko:

1. Zordunen jarraipena eta kontrola

Hain zuzen ere, honako neurri hauek nabarmenduko dira:

- Zerga-zorrak ordaintzean erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa adierazteko jarduketak.
- Zordun handien jarraipen berezia; horretarako, zordunari eta haren inguruneari buruzko txosten xehatuak egingo dira, balizko ondare ezkutua detektatzeko, eta agertzeko zitazioa egingo zaie, beren zerga-egoera erregulariza dezaten.
- Ondare-betearazpenak bultzatzea enbargo- eta enkante-jarduketan bidez, bai zorrak kobratzeko, bai beste zordun batzuei ez ordaintzeko asmoa kentzeko.
- Itxuraz ondasunik eta gauzatzeko moduko eskubiderik ez duten, baina, aldi berean, kreditu- edo zordunketa-txartelen titularrak diren eta/edo txartel horiek erabiltzeko baimena duten zordunak ikertzea.
- Zordunen eta erlazionatutako hirugarrenen aurrean jarduketa presentzialak egitea sustatzea eta bultzatzea.

2. Ondare-ekutatzeak eta ondare-hustuketak detektatzea

Foru Ogasunaren zordunek egiten dituzten ondasun eta eskubideen eskualdaketa, dohaintza, herentzietan uko egitea eta antzeko eragiketarako kontrolatu eta berrikusiko dira. Izan ere, horrelako jarduketarako ondasunak ostentzeko asmoa azalera dezakete, bai diru-bilketako ohiko prozeduretan, bai konkurtso-prozeduretan.